



## Etxean debutatzera

Etxarri Aranazko boxeo eta kick boxing beilaldian mustuko dira Arbizu Borroka Eskolako neskak / 2-4

**Asteazkenetik aurrera mediku bakarra egonen da Altsasu, Olatzagutia eta Ziordirako** / 14

**Arakilgo Udalaren aurtengo aurrekontuen ardatzak etxebizitza eta Itsasperri dira** / 7

**Bakaikuko Udala eskolak hartu zituen eraikina berritzean eta dendan zentratuta dago** / 9

**Ezkurdiak eta Lasok igandean jokatu duten Buruz Buruko finalak aparteko ikusmina piztu du** / 15

**Bi urte ondoren, Altsasuko BHiko kontzertu erraldoia lortia zabalgunean eginen dute** / 21



Aroa Petriati, Aritz Agirrebengoa irakaslea, Irati Altzelai eta, kuxkurtuta, Arbizu Borroka Klubeko Ruben Gelbentzu. ARBIZU BORROKA KLUBA

## Beilaldiko borrokak

- Joseba Diaz vs Victor Vega (boxeo profesionala)
- Jon Cardenas vs Oihan Perez
- Sheila Muruzabal vs Irati Altzelai
- Raul Carvajal vs Steven Pilco
- Mario San Martin vs Txomin Iturbe
- Garat Flores vs Felipe Escudero
- Garazi Autor vs Aroa Petriati
- Oihan Arnanz vs Edu Mata
- Izan Ibiriku vs Ezeiza
- Erik Hernandez vs Hegoa Olite (Nafarroako Kick Boxing Txapelketa)

gehienbat, baina asmoa da pixkanaka beste borroka eremutan sartzea, lurreko borroka edo proiektzio ("derribo" delakoa) lana izan daitezkeenak" dio.

# Ringeko izar handien bidean

**BOXEOA / KICK BOXINGA** Etxarri Aranatzek boxeo, kick boxing eta K1 beilaldia hartuko du larunbatean, Kanku Gym-ek antolatuta. 10 borrokaldi dira, eta lau sakandarrek egin dute tokia: Irati Altzelaik, Aroa Petriatik, Garat Floresek eta Oihan Arnanzek

### Maidar Betelu Ganboa

ETXARRI ARANATZ / ARBIZU

Ikusmin handia piztu du Joxe Vicente Eguzkizak sustatzen duen Burlatako Kanku Gym gimnasio ezagunak larunbatean, maiatzak 28, 19:00etatik aurrera Etxarri Aranatzek antolatuta duen boxeo, kick boxing eta K1 beilal-

diak. Agian, beilaldia iragartzen duen kartel deigarrian aurpegi oso ezagunak ageri direlako, lau borrokalari sakandar, hain zuzen ere: Irati Altzelai Karasatorre etxarriarra, Aroa Petriati Gokoetxea arbizuarra, Garat Flores Gorritz etxarriarra eta Oihan Arnanz Ziordia altsasuarra.

Garat Flores eta Oihan Arnanz Kanku Gym gimnasioan trebatzen dira eta Kanku Gym-en izenean lehiatuko dira. Floresek Felipe Escudero izango du aurkari, eta Arnanzek Edu Mata. Irati Altzelai eta Aroa Petriati, aldiz, Arbizu Borroka Klubean trebatzen dira eta larunbatekoa euren

lehenengo borroka izango da. Arbizu Borroka Kluba gertutik ezagutzeko aitzakia bikaina.

### Arbizu Borroka Kluba

Aritz Agirrebengoa altsasuarrak aurtien hartu du Arbizu Borroka Klubeko helduen taldeko ardura. "Aspaldi ezagutzen nuen klube-ko jendea, Altsasun irakasle moduan nembilenetik. Gure eta haien elkar-terean artean Lagunarteko Borroka Egunak antolatzen genituen urtean behin edo bitan, gure ikasleei, intentsitate kontrolatu batean, borroka egiteko aukera eskaintzeko. Orduko irakaslea Jon Arakama zen, Yo-seikan Budoan trebatzen ezagutu ginen aspaldi, eta bera medio, nik aurtien bere erreleboa hartu dut Klubean irakasle moduan aritzeko" aipatu du Aritz Agirrebengoak. "Kuadrilla potentia gaude. Kick boxinga lantzen duen gimnasio bat denez, orain arte ukabil-zango arloan aritu gara

### Txalotzekoa

Arbizu Borroka Klubean dituen ikasleen artean daude Irati Altzelai eta Aroa Petriati, Etxarri Aranatzko beilaldian mustuko diren borrokalariak, "klub gonbidatu gisa". Irati Altzelaik Sheila Muruzabal izango du arerio, boxeoan, eta Aroa Petriatik Garazi Autor, kick boxingean. "Erronkari aurre egiteko prest daude biak, ez dira atzera egiten duten horietakoak. Seriotasunez entrenatu dira eta borroka ederrak eskainiko dituzte, zalantzarik gabe. Determinatuta ikusten ditut, borroka egunerako nerbioak ongi kudeatzen eta ringera igotzeko gogotan. Etxarriko harmaila astinduko dute, ziur" argi du Agirrebengoak.

Bi konbate hauek Etxarri Aranatzko beilaldiko emakumezkoen lehia bakarrak izango dira, "eta horrek erreferente bihurtzen ditu. Zorionez gero eta neska gehiago trebatzen dira kontaktuzko kiroltan, baina ez dira



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Irati Altzelai, Ruben Beltzuntze sparring duela. ARBIZU BORROKA KLUBA

asko borroka egitera animatzen direnak eta hori txalotzekoa da".

#### Entrenamenduak

Azken asteetako entrenamenduak "intentsitate handikoak" izaten ari dira. "Intentsitatea igo dugu, borroka egunaren simulazioa eginez, baina azken asteko erritmoa pixka bat jaitsi dugu, Aroak eta Iratik pilak kargatu eta borrokara energiarekin joan daitezten. Hau prestaketa mentala lantzeko momentua da gehienbat, konbatea planifikatu eta estrategiak fintzeko unea, gimnasioan lantzen diren tematikak, kolpe konbinazioak eta bestelakoak estres egoera batean ateratzea ez baita hain sinplea. Pentsa kolpeak jasotzen dituzten bitartean aurkariaren borroka estiloa gailentzeko estrategiak asmatu behar dituztela" dio irakasleak.

#### Balorazio positiboa

Ikasturtearen "balorazio positiboa" egiten du, "urte osoan gogor

**"ERRONKARI AURRE EGITEKO PREST DAUDE BIAK, RINGERA IGOZKEKO GOGOTAN" ARITZ AGIRREBENGOA**

entrenatu eta gero, Arbizu Borroka Klubak borroka beilaldi batean parte hartzeko aukera izatea sekulakoa baita, borrokariaren eta klubaren lanaren erakusle izango dena. Horrelako ekintzek klubaren bizirautea bermatzen dute eta gimnasioak, talde gisa, egindako esfortzua eta ekimena ikusgai jartzen du". Eta hori guztia, Arbizukoa "gimnasio herrikoa" dela kontuan hartuta. "Bertan sakandarrak biltzen gara, arte martzial eta kontaktu kirolean elkarrekin aurrera egiteko, norbera gainditu eta diziplinan trebatzeko, jakina, beti giro atsegin batean".

#### Irati Altzelai eta Aroa Petriati

Irati Altzelai gaztetan hasi zen Yoseikan Budoan. 2019 urtean borroka talde bat sortu zen Etxarri Aranatzan, Jon Arakama entrenatzailea zela, eta han aritu zen, joan zen urtean Arbizu Borroka Klubera joan arte, lehenengo Arakamarekin eta gero Agirrebengoarekin. "Arbizun kick boxinga lantzen da eta Aroa eta biak kick boxingean trebatzen gara, berez. Baina ni boxeoan erosoago sentitzen naiz, eta Etxarri Aranazko beilaldirako azkenaldi honetan boxeoaren entrenatzen dut" dio Altzelaik.



## "Urduritasuna sumatzen dut; jokoaren zatia da"

AROA PETRIATI GOIKOETXEA KICK BOXINGA

**1.** Borroka hiru round izango ditu, bakoitza 2 minutukoa. Iratik baino denbora zerbait gutxiago. Azkenean barruan egonda eta nerbioak eta estresa asko izanda, minututxo horiek nabarmentzen dira.

**2.** Entrenamenduak betiko moduan joan dira, baina astean bizpahiru egun izan beharrean, egunero entrenatu dugu. Irati eta biok beilaldian aritzean, biek dugu antzeko prestakuntza eta konpromisoa. Berak boxeoan eta nik kick boxingean lehiatu arren, batera entrenatu dugu ia egunero. Gogorra da, baina bion laguntza eta babesarekin, motibazioa ez da bukatzen.

**3.** Espero dudana denok disfrutatzea da. Ez da erraza izango, momentuko urduritasunagatik: jendea, presioa... baina ahal dena egingo da. Garazi ez dut ezagutzen, Etxarriko ringean ezagutuko dugu elkar. Horrek ere urduritasun pixka bat eragiten dit, nola borrokatzen duen ez jakite horrek. Dena emango dugu.

**4.** Eguna heldu ahala gero eta urduritasun gehiago sumatzen dut. Jokoaren zatia da eta gustuko dut, bestela ez luke graziaz izango. Nik uste denok eguna ailegatzeko irrikaz gaudela.

**5.** Bai, ilusio asko egiten dit lagunak joan behar direla esatea. Amak, ordea, ez dit berdina esaten. Beilaldian parte hartu behar nuela esan nionean, kartela ikusita zuela baina ez zuela sinistea nahi, eta beilaldiko egunean ez zuela alabarik esan zidan. Pixka bat dramatizatu zuen.

Aroa Petriati 17 urterekin hasi zen mundu honetan. "Aspaldi arreta deitzen zidan, eta lagun batek Irurtzunera probatzerako gonbidatu ninduen, irudikatuta nuen bezalakoa zela ikusi nuen. Esfortzua eskatzen duen kirola da, oso konpletoa baita, kirol osoa" dio. Arbizuko Borroka Klubean duela bi urte hasi zen. "Kick boxinga dibertigarria-

goa iruditzen zait, baita nekagarriago ere. Boxeoari ez diot meriturik kentzen eta gustuko dut, baina hobe moldatzen naiz kick boxingean" argi du.

Boxeoaren eta kick boxingaren arteko ezberdintasun nagusia da boxeoan eskuak erabiltzen direla, eta kick boxingean, eskuez gain, hankak erabili daitezkeela. "Hankak kokatzeko modua



## "Denek animatzen naute, eta babes handia da"

IRATI ALTZELAI KARASATORRE BOXEOA

**1.** Nire borroka 3 round izango ditu, bakoitza 3 minutukoa. Aroak baino denbora zerbait gehiago izango dut lan egiteko.

**2.** Aroak esan bezala ia egunero entrenatu dugu azken hilabete hauetan; nire ustez, garrantzitsua izan da elkarrekin aritzea. Pisua jaitea ere tokatu zaigu, eta frustrazio momentuak egon diren arren, niretako

elkarri emandako babes ezinbestekoa izan da eta izaten ari da ibilbide honetan.

**3.** Ez dut Sheila Muruzabal ezagutzen, baina badakit nik baino esperientzia gehiago duela. Hori bere aldeko abantailatzat hartzen dudana arren, saiaturik naiz berari lana erraz ez jartzen eta bere mailan egoten. Espero dut nire lana egin ahal izatea eta borroka orain arte egin dugun lan eta esfortzuaren erakustaldi bat izatea.

**4.** Aipatu dudana esperientziak eta Muruzabalen borro-

ka estiloa ez ezagutzeak urduri jartzen nauela aitortzen dut. Baita zenbat sarrera saldu diren ikusteak ere, izugarria izan delako. Baina, ahal dudana hoberean egingo dut.

**5.** Bai, lagunak eta gertukoak bertan izango dira, eta hori oso pozgarria da. Denek animatzen naute, eta horrek babes handia ematen dit. Ama zalantzan dago oraindik joan edo ez, ni baino urduriago dagoelako, baina bere babesaren erakustaldi bat (kar, kar).

ezberdina da. Batendako onuragarria denak, bestearendako ez du horrenbesteko baliorik" azaltzen du Petriatik. "Eta guardia ez da berdina. Kickean, ostikoez defendatzeko hankak arinago egon beharko dira, eta boxeoan hanketan defendatzeko beharrik ez dagoenez, gehiago jaitsi zaitezke" gaineratu du Altzelaik.

**Eskertuta**

Altzelaik hitz onak ditu Agirrebengoarekiko. "Boxeorako presatze eta horretara moldatzeko erraztasuna erakutsi du, eta asko eskertzen diot egin duen esfortzu guztia. Borrokatze prest bago, bere lanagatik ere bada. Laguntzeko prestutasun handia izan du" dio. "Ni ere oso gustura nago. Aritz irakasle oso ona iruditzen zait, bereziki duen inplikazioagatik eta gauzak azaltzeko moduarengatik. Aritzek gauzak sinplifikatzen ditu eta guztiok erraz ulertzen dugu dena" gehitu du Petriatik.

Etxarri Aranazko beilaldia aukera paregabea da biendako, borrokan mustuko direlako. "Aroak eta biok gure lana erakusteko aukera bat nahi genuen, eta Etxarri Aranazko beilaldi bat egingo zela jakin genuenean, Arbizu Borroka Klubeko Ruben Gelbentzuk Kankuko entrena-tzailearekin hitz egin zuen eta konbateak lortu zizkigun" azaldu du Altzelaik. "Berak mugitu zuen dena eta aritu nahi genuen proposatu zigunean, ilusio handia piztu zitzaidan" gogoratu du Petriatik.



Aroa Petriati, Aritz Agirrebengoarekin entrenatzen. ARBIZU BORROKA KLUBA

**Kolpea baino gehiago**

Garai batean borrokalari oso onak izan ziren Sakanan, eta orduan antolatzen ziren borroka eta beilaldiak oso ezagunak ziren, "horregatik Etxarri Aranazkoa bezalako beilaldiak egotea oso pozgarria da niretako, gurea sarritan gaizki ikusia dagoen kirola delako. Aukera polita iruditzen zait kirol mota hauek kolpeak ematea baino gehiago dela erakusteko. Kirol honek teknika handia eskatzen du, beilaldian argi geratuko den bezala" azpimarratu du Altzelaik. Gutzika, baina geroz eta emakume gehia-

**"KIROL HAU KOLPEAK EMATEA BAINO ASKOZ GEHIAGO DELA ERAKUTSIKO DUGU"**

IRATI ALTZELAI

**"KICK BOXINGA ESFORTZUA ESKATZEN DUEN KIROLA DA, KIROL OSOA"**

AROA PETRIATI

go ikusten direlako pozik daude, "horrela normalizatuagoa izango delako. Kanpotik ikusita kirol bortitza dirudi, baina dirudiena baina adiskidetasun gehiago dago kirolarien artean" dio Petriatik. Izan ere, aurkariarekiko errespetuan oinarritzen den kirola da.

**Flores eta Arnanz, sendo**

Beilaldian ere Garat Floresek eta Oihan Arnanzek parte hartuko dute. "Nik Garatekin entrenatu izan dut, eta oso ondo ibiltzen da. Seguru nago oso borroka ona egingo duela eta ikuskizun polita eskainiko duela" uste du Altzelaik. "Potentzia asko duten bi mutil dira, oso ongi ibiltzen direnak. Ikuskizuna eskainiko dute, eta ikusteko gogotsu nago" gaineratu du Petriatik.

Beilaldiko sarrera gehienak saldu omen dira, jaialdiak sortu duen interesaren erakusle, baina tokia egonez gero Altzelaik bertara gerturatzea gonbidatu ditu sakandarrak, "halakoak ez direlako sarritan antolatzen eta uste dudalako jendeari gustatuko zaiola. Kirola eta festa giroa uzartuko dira eta giro izugarria egongo dela uste dut".

## "Klubeko ateak zabalik daude, etorri eta probatu"

RUBEN GELBENTZU ARBIZU BORROKA KLUBEKO KIDEA

**Noiz sortu zen Arbizu Borroka Kluba?**

2020ko udan, pandemia inguruko murrizketen ondorioz, ordura arte Irurtzongo Kick Boxing taldean entrenatzen genuen sei arbi-zuarrok aukera hori galdu genuenean. Entrenamenduekin jarraitzeko aukera ezberdinak aztertu, eta Arbizun bertan kirol mota honek sortzen duen interesa probestuz, arte martzial ezberdinetan aritutako 20 arbi-zuarren talde bat osatu, eta udalarekin harremanetan jarri ginen. Elkarrizketa horien ondorioz, Arbizuko eskola zaharra gure esku utzi zuen Udalak, entrenatzen jarraitu ahal izateko. Bertan entrenamenduak hasi eta kluba ofizialdu egin genuen. Horrela, Arbizu Borroka Kluba Nafarroako Kick Boxing Federazioaren parte izatera pasatu zen eta taldekideek federatu eta borroka ofizialetan parte hartu ahal izateko lizentzia lortu genuen.

**Lehen udalak utzitako eskola zaharretan entrenatzen zenuen, baina aurten tokiz aldatu zarete, ezta?**

Bai, eskola zaharra beste proiektu batzuetara bideratuta egonik, aurten Utzubarren herriarena den pabilioi bat alokatu dugu, zati batean Arbizuko Udalaren laguntza jasotzen dugularik. 140 metro karratu egokitu ditugu.

**Zenbat kidek osatzen duzue kluba? Nola kudeatzen duzue taldea?**

Taldea, 25 kide helduk osatzen dugu momentu hauetan. Sakandarrak guztiak, arbi-zuarrok, etxarriarrak, altsasuarrak... Helduekin batera, Arbizuko 20 haurrek ere Yoseikan Budo entrenamenduak jasotzen dituzte astean bi egunetan, klubeko kide diren Asier Maiza eta Adur Insaustiren eskutik. Gure antolakuntza kide parte hartzaileen asanbladan oinarritzen da, autogestioan. Batzarretan erabakiak hartu eta hauek auzolanean ematen ditugu praktikara. Entrenatzera etortzen denak hileroko kuota bat ordaintzen du, alokairuari eta entrenatzaile gastuei aurre egiteko. Nik, momentu honetan, klubeko idazkari lanak egiten ditut.

**Zein nolako klaseak eskaintzen dira Arbizu Borroka Klubean?**

Helduok kick boxinga lantzen dugu eta haurrek Yoseikan Budoa. Honekin batera eta tarteka, boxeoa, lurreko borroka eta beste zenbait modalitate jorratzen ditugu, entrenatzailearen planifikazioaren arabera.

**Zer nolako harrera du klubak?**

Helduen eta haurren artean 50 lagun inguru aritzen gara, eta taldea egonkortzen ari garen



UTZITAKOIA

heinean, bai, pozik gaude. Kirol gogorra izanik, errespetuan eta elkarlanean oinarritzen diren entrenamenduetan giro polita sortu da eta horri eustea nahiko genuke. Edozein unetan lanean hasteko ateak zabalik dituen kluba gara.

**Joan zen urtera arte Jon Arakama zen irakaslea, baina aurten Aritz Agirrebengoak hartu du bere tokia.**

Azken bi urte hauetan beraien esku utzi dugu gure prestaketa fisikoa eta emaitzarekin oso pozik gaude. Prestaketa fisiko, tekniko eta psikologiko integrala jasotzen dugu entrenamendu bakoitzean, sparring saioetan bukatzen diren, luzaketa, ariketa tekniko, fisiko eta psikologikoei esker. Bilatzen genu-

na jasotzen dugu eta entrenamenduetan barnean daukagun gogo eta interes guztia, ikasketa bihurtzea ahalbidetu dute. Jonen alde egin genuen bezala, aurten Aritzen alde egin dugu apustu eta beraien inplikazioak onura besterik ez dizkigu ekarri. Teknikoki asko ikasten ari gara, arte martzialak barruan daramatzaten pertsonak ahalbidetu dezaketen arreta eta inplikazio berezi horri esker. Eta emaitza begi bistan dago: Aroa Petriati eta Irati Altzelai ringera igoko dira larunbat honetan Etxarri Aranazko, Jon eta Aritzen eskutik jasotako prestaketa jarraituari esker lortutako konfiantzan, eta denbora luzez elkarrekin tamania izerdituz, kluba osatzen dugun kide guztion indar, miresmen eta babesarekin.

**Datorren ikasturteari begira, noiz hasiko dira klaseak, noiz eman daiteke izena eta zein eskaintza izango duzue?**

Entrenamenduak iraila hasieran hastea da gure asmoa. Oraindik asanbladan bildu eta aurtengo urtearen nondik norakoen balorazioa egiteko daukagu. Bertan, heldu den denboraldirako helburuak eztabaidatu eta finkatuko ditugu. Helduon kick boxing entrenamenduez aparte, modalitate ezberdinetako master classak martxan jartzea da gure ideietako bat. Jakinaraziko dugu. Gurekin kontaktuan jartzeko, taldeko edozein kideren bitartez egin daiteke. Esan bezala, ateak zabalik daude, etorri eta probatu.


**ASTEKOA**

MIKEL MAZKIARAN

**Harro nago**

Badaude pertsonak haien sexu-identitatea, generoa edo sexu orientazioa gizarteak jarri dituen arauetatik kanpo bizitzea erabakitzen dutenak. LGTBI+ akronimoak erreferentzia egiten die lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualei. Kolektibo honekin identifikatuta sentitzen diren pertsonak oraindik ere kaltetuak eta diskriminatua izaten jarraitzen dute, eta beren eskubide guztiak ez dituzte bermatuta. Horregatik dituzte lege eta planak: 8/2017 Foru Legea, ekainaren 18koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa; LGTBI+ 2019-2022ko Ekintza Plana. Honez gain, badaude zenbait erakunde eta kolektibo, horien artean ezagunena Kattalingorri (Irurtzunen informazio bulego bat duena).

Eskubideen aitorten honetara iritsi arteko borroka ez da erraza izan. Egin duten bidea ikusteko Nafarroako Memoriaren Institutuak joan den urtean argitaratu zuen

txostena erreparatu dezakegu. Bertan LGTBI+ Kolektiboak frankismoaren garaian jasan zuen errepresioari buruz hitz egiten du: kartzela, atxilotetak... Eta gu? Nola tratatu ditugu duela 30 edo 40 urte Sakanako herrietan beren sexualitatea modu ezberdinean bizitzea erabakitzen zuten pertsonak? Zaila izan zen gay edo lesbianentzat herri txiki batean bizitzea? Jar gaitzen haien lekuan momentu batez, erantzuna argi izango dugu.

Sakanako bizilagun ausart horiekiko miresmena erakutsi nahiko nuke. Eta Alaska eta Dinaramaren 80. hamarkadako abesti bat eskaini: *A quién le importa: La gente me señala/ Me apuntan con el dedo / Susurra a mis espaldas / Ya mi me importa un bledo.*

Sakanako bizilagun ausart horiekiko miresmena erakutsi nahiko nuke. Eta Alaska eta Dinaramaren 80. hamarkadako abesti bat eskaini: *A quién le importa: La gente me señala/ Me apuntan con el dedo / Susurra a mis espaldas / Ya mi me importa un bledo.*

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

**HARA ZER DIEN****Garenaz harro gaude, gora borroka transmaribibolloa!****ERRAFAILAK SAKANAN**

Azken hilabeteotan transmaribibolloon kontrako hainbat erasoren berri izan dugu eta maiatzaren 17an kalera atera ginen gaur egun oraindik jasan behar izaten dugun LGTBI+ fobia salatuzeko. Sakanako feminista, neska\* gazte, transmaribibollook argi dugu eraso hauek ez direla kasu isolatuak, zapaltzen gaituen sistema zisheteropatriarkal kapitalistaren espresio gordinena baizik.

Heterosexualitatea gizonen boterea bermatzen duen erregimen politikoa da, gizon eta emakume kategoriak sortzen eta indartzen dituen, bi hauen arteko harremanak

arautuz. Arazoa estrukturala da, zisheteronormatibitateak gure bizitzen alderdi guztiak arautzen ditu: plazera arautzen digu, identitateak ezabatu eta normatik ateratzen garen oro zigortzen gaitu. Guk inposizioari uko egiten diogu, eta gorputz eta harremantze hegemonikoekiko ezberdintasuna eta disidentzia aldarrikatzen ditugu.

Ez ditugu haien genero arauak eta ezarritako sexualitateak onartuko, ez dugu horregatik sufrituko. Ez gara normatibizatuko, asimilazio mota guztien aurrean antolatuta eta borrokatuko dugu. Ekainaren

28an, Sakanako neska\* gazteok ozen aldarrikatuko dugu harro gaudela eta ez gara ezkutatu, beldurrik ez dugulako. Orientazio sexualaren, desiraren eta identitate politikoen inguruan hausnartzen jarraituko dugu, zisheteroaraua eta barneraturiko harreman ereduak kolokan jarriko ditugu.

Inposizioaren eta erasoaren aurrean, hausnarketa, deseraikuntza eta autodefentsa transmaribibolloa izango da gure arma! Garenaz harro gaude eta bizigarriak diren biziak nahi ditugu. Horregatik, saretzeko, antolatzeko, hausnartzeko eta egongo diren mobilizazioetara adi egoteko deia luzatu nahi dugu.

**GORA BORROKA ETA AUTODEFENTSA TRANSMARIBIBOLLOA!**

**OBJEKTIBOTIK**


**Natxo C.L.**  
@dut1977

Egun on Etxarri Aranatz. Gora sakana 🍌



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**GK diseinu zerbitzua:**

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhua Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus  
618 640 056

**Administrazioa:**

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**

Maidier Gabirondo Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**

Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

**LAGUNTZAILEAK**

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernua**



Abelburuak Andian, Ingiriko bidean, dagoenazienda kamioietan kargatzeko itxuraren ondoan. ARTXIBOA

## Natur parkeaazienda hartzen hasi da

Baimena eskuratzen duten abeltzainek abenduaren 15era arte izan dezaketeazienda mendian. Joan den urtean 341 ustiapenetako 39.459 buru izan ziren Urbasa-Andian; gehienak ardiak ziren

### SAKANA

Apirilaren 15etik abenduaren 15era arte abeltzainek Urbasa-Andia natur parkeko larreak erabiltzeko aukera dute, hau da, beraienazienda mendian larratzeko aukera dute. Horretarako, jakina, aziendak osasun baldintza egokiak izan behar ditu. Ho-

rregatik, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak abeltzainei hainbat osasun betebeharrak eskatzen die. Horrek eragozten du mendian gaitzak zabaltzea etaazienda kutsatzea. Mendi gainean ustiategi gutxi batzuk daude eta haiek urte guztian duteazienda men-

dian, baina, gainontzeko abeltzainek lau edo sei hilabete artean izaten duteazienda naturparkean. Eguraldiak eta belar kopuruak zerikusia izaten du horretan.

Oraindikazienda mendira igotzeko aukera dagoenez, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuan urte akabera arte ez

dute igo diren buruen kopururik izanen. Hala ere, joan den urtean 341 ustiapenetako 39.459 buru larratu ziren mendian. Haien %76,52 (30.193) ardiazienda izan zen, %11,98 (4.726) behiazienda, %9,91 (3.910) zaldiazienda eta %1,6 (630) ahuntzazienda. Abere horien %51,51 (20.325 buru) Andian larratu zen eta gainontzeko %48,49 Urbasan (19.134).

Mendiak dituen larreak eta haietan egon daitekeen buru kopurua Azienda Larri Unitateen (AzLU) bidez kalkulatu dute teknikariek. Joan den urtean 13.259 AzLU izan ziren natur parkeko 15.637 hektareatan, haien %51,98 (6.892) Urbasan eta %48,02 (6.367) Andian.

Nafar guztien mendia da eta herrialde guztikoazienda egoten da larratzen. Joan den urtean mendiraazienda igo zuten 341 abeltzainen %41,06 (140) sakan-darrak ziren, eta gehienak, 102, Urbasara igo zituzten beraien ustiategietako buruak. Gainontzeko abeltzainen jatorriari dagokionez, %29,33 (100) Nafarroa ekialdekoak ziren, %10,56 (36) erdialdekoak, %9,97 (34) Kantauri aldekoak, %8,8 (30) Ameskoakoak eta %0,29 (1) Erriberakoa.

Bestetik, Interreg POCTEFA NaturClima mugaz gaindiko proiektuaren azken mintegia egin zen hilaren 17an. Haren bidez, Pirinioen bi aldeetako natur guneen kudeatzeaz arduratzen diren arteko lankidetzareagotu da, klima aldaketara hobeto egokitzeko, sustatzeko eta babesteko. Urbasa-Andia ere proiektuaren parte izan da eta faunari eta florari buruzko azterlanak eta jarduketak egin dira. Urederrako tobak babesteko neurriak hartu dira.

## Lehen sektorean nola ekin azaltzeko gida kalean

Bost pausotan nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bat nola ezarri azaltzen du


### SAKANA

Cederna Garalurrek *Lehen sektorean ekiteko gida* argitaratu du. Mendialdearen ekonomia eta gizarte garapena sustatzen duen elkarteko kideen iritziz, "azpimarratzekoa da lehen sektoreak landa eremuetan enplegua sortzeko egiten duen lana, jarduera berriak sortuz, ustiategiak ordezkatzeko edo ustiategiak dibertsifikatzeko". Hori kontuan hartuta landu dute Cederna Garalurren aipatutako gida. Dokumentua bost atal edo pausotan dago antolatuta, eta galdera eta erantzunen bidez ekintzaileek proiektuetan aurrera egin ahal izateko gaitzitu behar dituzten alderdi tekniko eta ekonomikoak jaso dituzte gidan. Era berean, Cederna Garalurren gidak ekintzaileendako lagungarriak izan daitezkeen hainbat tresna proposatzen ditu, eta akonpainamendua egiten duten erakunde eta organismoek eta prestakuntza programa esanguratsueni buruzko bibliografia zabala du.


Garapenerako elkarrekin aipatutako gidan ereduak diren kudeaketa kolektiboko praktika onak jaso ditu. Gainera, kudeaketa eredu berritzaileak eskaintzen ditu hainbat arlotan: ekoizpena eta eraldaketa, marken merkaturatzea eta sorkuntza, marketina, kudeaketa administratiboa eta instalazioen erabilera komunitarioa. Cederna Garalurrek aurkeztutako gida Noemi Salazar ingeniari agronomoak egin du.

Hilaren 6an aurkeztu zuen gida Cederna Garalurrek. Argitalpen hori elkartearen *Lehen Sektorearen Balorizazioa* izeneko proiektuaren barruan dago. Cederna Garalur da buru, eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko LGENF funtsek finantzatu dute, 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren bidez.

Urbasa-Andia natur parkean 2021ean egon zenazienda kopurua (Buruak)



Urbasa-Andia natur parkean egon zenazienda jatorria (Ustiapenak)





Ihobar eta Etxeberriko ikuspegia. ARTXIBOA

# Etxebizitza eta Itsasperri udalaren aurtengo lanaren ardatzak

Arakildarren etxebizitzarako sarbidea erraztu eta etheen zaharberritzea sustatzeko lanean ari da udala. Bestetik, ermita erromanikoaren ingurua arautu eta txukundu nahi du ibilgailuendako 30 aparkaleku sortuz, eta bizikletendako ere

ARAKIL  
Arakilgo Udalak aurten 1.476.926 euroko aurrekontua izanen du. Kopuru horretatik 590.000 euro inbertsioetara bideratuko ditu udalak. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, bi egitasmok hartuko dute inbertsioaren zatirik handiena. Alde batetik, arakildarrak ibarrean bertan etxebizitzarako sarbidea izateko eta jendeak alde ez egiteko neurriak hartu nahi ditu udalak. Bi arazo daude gaur egun: alokairurako etxe falta eta hutsik dauden etxeak ez direla alokatzen. Horren barruan, "etxebizitza bat eskuratu moldata eta gazte alokairura bideratzeko" 150.000 euro aurreikusi dituztela azaldu du Olaberriak. Bestetik, ibarra lehentasunezko zaharberritze eremua izendatu eta horrela etxeak zaharberritzen dituztenek dirulaguntza handia-

goak jaso ditzaten lanean ari da udala. Hori egiteko 12.000 euro aurreikusi ditu.

Bestetik, etxebizitzak botatzeko 30.000 euroko diru saila du Arakilgo Udalak aurten. Alkateak esan duenez, "arazo bat dugu egoera txarrean dauden etxeekin". Zehaztu duenez, "badaude utzita dauden etxeak, aldamenekoei arazoak sortzen dizkietenak. Udal arkitektoak haiek ikuskatu eta aurri egogorran daudela ondorioztatzen badu udaletik jabeari botatzeko eskatzen diogu. Halakorik ez badu egiten, udalak bere

**ETXARRENGO SAREAK  
ETA ZORUA  
BERRITZEKO  
DIRULAGUNTZA  
ESKATUKO DA**

gain hartzen du etxea botatzea eta gero jabeari kobratzen dio", azaldu du Olaberriak. Aurreikusitakoarekin bi etxe botatzeko besterik ez du udalak.

## Itsasperri

Egiarretako ermitaren ingurua "arautu eta txukuntzeko" premia ikusi dute udalean. "Pandemiarekin jende gehiago joan da; autokarabanak, koadrilak igerilekuekin edota barbakoeekin... Ermitaren ingurua arautu, txukundu eta hari balioa aitortu nahi diogu, ez masifikatzeko eta toki lasaia izaten segi dezan nahi dugu", argitu du alkateak. Horregatik, NA-7501 errepidearen bazterrean, ermitaren ekialdean aparkaleku bat egingen du Arakilgo Udalak. Eta beste bat ermitaren mendebaldean. Ibilgailuendako 30 plaza izanen ditu eta bizikletendako aparkalekua

ere jarriko du udalak. Gainera, inguruarekin hobe bat egiteko zuhaitzak landatzea aurreikusi dute. Lanek 150.000 euroko aurrekontua dute.

Udaletxean ere lanak egingen dira. Eraikinaren energia eraginkortasuna hobetzeko, lehen solairuko bulegoak kristalekin banatuko dira. Eta beheko solairuan udaleko langileendako aldagela egingen da, orain arte halakorik ez baitute izan. Bi lanetara 50.000 euro bideratu ditu Arakilgo Udalak. Joan den urtean erositako traktoreari jartzeko sasiak garbitzeko makina erosi du udalak. 30.000 euro jarri du horretarako, "sasiak garbitzen lan handia baitugu". Bestetik, bakarrik bizi diren pertsonen premiak asetzeko zerbitzua sortzeko 11.000 euro jarri ditu. Gainera, bertako hazien proiektuari segida eman eta egonkortzeko 10.000 euro daude aurreikusita. Aurrekontu bera du Aixitako gaztelua zaharberritzea bideratutakoak. Urteak dira Arakilgo Udala Iñaki Sagredorekin elkarlanean eginkizun horretan ari dela. "Aurten panelak jarriko ditugu eta opatutakoekin erakusketa bat egin nahi dugu, proiektuari akabera emateko". Ospakizunetan erabiliko den karpa eta eszenatokia erosteko 8.000na euro bideratuko ditu udalak.

## Kontzejuak

Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planaren bidez zein lanetarako finantzazioa eskatu argi dute udalean. Etxarrengo sareak eta zorua berritzea "halako lanak egin gabe dagoen herri bakarra baita. Hiriberriko zati bat geldituko litzateke", azaldu du Olaberriak. Zuhatzukoak ere berritzea behar du,

baina horiek 2025erako edo lirateke. Eta Ihabarren dauden ur ihesak konpondu nahi litzuzke ere udalak. Kontzejuak bestalde, ur biltegi eta hilerrietarako bideak konpontzea eskatu dute. Bestetik, Satrustegiko kaleetako sareak eta zoruak berritzeko eskatutako mailegua bukatzeko aurten 40.000 euro ordaindu ditu udalak.

Urtero moduan Arakilgo Udalak kontzejuen artean 35.000 euro banatuko ditu; guztiak kopuru finko bera jasotzen dute eta bigarren zatia populazioaren arabera jasotzen dute. Kontzejuak hain zuzen ere udalari azaldu diote beraien herrietan zein lan dauden egiteko. "Bakoitzarendako zein lan den egokiena aztertu ondoren, udaleko lanen taldeak eta Iturraskarrin parte hartzen dutenekin egingen ditugu lan horiek", azaldu du alkateak. "Hala ere, udaleko langileak ez dira guztia egitera iristen eta herriek ezin dute auzolana ahaztu, lan asko auzolanean egin baitaitezke. Auzolana ere bada gure kultura zati eta funtzionatzeko era. Eta ez dakit galtzen ari ote den", hausnartu du alkateak.

Aurten ibarreko herrietara iritsi dena zuntz optikoa izan da. Sakanako hainbat udalek eta Sakanako Garapen Agentziak sustatu dute Guifinet fundazioarekin batera Sakananet zuntz sarea. Hala enpresa handiek zerbitzua eskaintzen ez zieten herrikeri zerbitzua emateaz aparte, publikoa den zerbitzua eskaini nahi zen. Arakilen dagoeneko martxan dago Internetarako konexioa. Olaberriak nabarmendu duenez, "herri guztiak daude konektatuta eta konexio ugari daude. Jendea zerbitzua-ekin oso kontentu dago. Oso azkar funtzionatzen du".

**BIKAIN  
GARAJEA**

Mekanika  
Elektromekanika  
Serie 100  
pintura prototipoa  
Autokarabana eta  
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

**FLORES**

Utzubar industrialdea Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistorra

## Amaiuraldira joateko autobus txartelak eskuragai daude

Nafarroa Berriz Altxak antolatuta Amaiuraldia egingen da garagartzaroaren 5ean. Burujabetzaren aldeko ekitaldi politikoa egingen da egun horretan Amaiurren eta egun osorako egitaraua prest dago Elizondon. Guztia garilaren 19an 500 urte beteko dira Gaztelak Amaiurko gaztelua hartu zuela gogoratzeko eta burujabetza aldarrikatzeko. Aipatu ekitaldia 11:30ean egingen da Amaiurko oroigarrian. Hura despeditzean, 12:15ean hiru km-ko marxa egingen da autobusak hartu eta Elizondora joateko. Izan ere, 14:00etatik aurrera, han festa izanen da. Besteak beste, honakoak izanen dira: 15:00etan herri bazkaria, ogitartekoak jateko aukera, 16:30ean Irrien Lagunak-en haurrendako txokoa eta ordu berean Trikidantz eta Madame Birrots musika taldeen emanaldiak.

Amaiurrera joateko autobusa Altsasutik 09:15ean abiatuko da. 09:30ean Arbizun eta 09:45ean Irurtzunen sakandarrak hartzeko geldialdiak egingen ditu. Buelta 20:30ean izanen da. Hala joan nahi dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte ohiko tokietan. Bestalde, Elizondon izanen den herri bazkarian parte hartu nahi duenak txartelak 30 eurotan [www.amaiuraldia.eus](http://www.amaiuraldia.eus) webgunean erosi beharko ditu.

## Aske, errepresioaren kontra eta amnistiaren alde

Jardun koordinadoraren barnean Aske antolakunde independentista eta sozialista sortu da, eta Sakanan talde bat eratu dute. Askeko kideek aurkezpenean adierazi zuten, "Euskal Herri Langileak jasaten duen errepresioa gainditzeko bidean, beharrezkoa da horren aurrean erantzun eraginkorrak emateko tresnak sortuko dituen, eta proiektu integral baten baitan kokatuta dagoen antolakunde bat". Haien iritziz, "beharrezkoa da errepresioari maila nazionalen aurre egiteko tresnak sortzea. Beharrezkoa da egunerokotasunean errepresioa aztertu eta sozializatuko duten dinamika martxan jartzea. Beharrezkoa da errepresioa gainditzeko aldera, epe luzerako perspektibarekin eta estrategia integral batekin jardungo duen proiektu berri baten sorrera".

Askekoek gaineratu dutenez, "nahitaezkoa errepresioa eguneroko pairatzen duten euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen alde borrokatzea". Haiendako amnistia aldarrikatu dute, "preso, errefuxiatu eta iheslarien askatasunaz gain, hauek borrokara eramandako arrazoiak gainditzeko, Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalkuntzaren gainditzeko suposatzen duelako".

# Goi tentsioko proiektuen kontra dorrez dorre

Lurkide Eguna hartuko Etxarri Aranatzek igande eguerditik aurrera. Autopista Elektrikorik Ez! plataformak REE eta Forestaliak proposatu dituzten goi tentsioko bi lineen kontra protesta egingen dute. Dorreetan argazkiak egingen dituzte aurretik

SAKANA

Lurrarekiko konpromiso egun gisa definitu dute Autopista Elektrikorik Ez! plataformako kideek igandeko Lurkide Eguna. Haren bidez Ixaso, Castejon eta Muru Arteederreta artean egin nahi diren goi tentsioko argindar linea proiektuen kontra protesta egin nahi dute. Red Electricia Española (REE) eta Forestalia enpresek goi tentsioko lineen proiektuak jendaurrean jarri ziren lastaila eta azaroan, aldi berean. Alegazioak aurkezteko epean, bi proiektuek ukitutako Nafarroako eta Gipuzkoako 25 udalek alegazioak aurkeztu zituzten. Horiiek prestatzen lagundu zuten plataformak.

Bertako kideek azaldu dutenez, enpresa sustatzaileen erantzuna otsailean eta martxoan jaso zuten. Plataformatik azaldu dutenez, "energia plangintzari, instalazioen beharri eta justifikaziorri, metaketa eta sinergia inpak-tuei, Natura 2000 Sareari, landarediari, hegazti-faunari edo paisaiari" buruz eman dizkieten erantzunak ez dituzte asetu eta, horregatik, "desadostasun idazkiekin erantzun genien, gure alegazioei erantzun egokirik eman ez zitelako", argitu dute.

Gaineratu dutenez, "proiektuak ikututako ondasun publikoen titular izan arren, izapidetzeko kontzejuak administrazio publikotzat ez dituzte hartzen. Haiak esaten dutenez, proiektuaren onarpen sozialari buruzko in-paktua 'moderatu' da. Surrealista da". Plataformatik "arrazoitutako eta arazoizko" alternatibak proposatu zizkieten bi enpresei, "baina ez dituzte aintzat hartu. Horrek izen hori merezi duen parte-hartze publikoko prozesu oro indargabetzen du", ondorioztatu dute.

### Proiektuak eteteko eskaera

Horixe egin du Autopista Elektrikorik Ez! plataformak. "Izapidetzen ari diren espedienteen



Lurkide Egunean parte hartzeraz deitu dute plataformako kideek. UTZITAKOIA

azterketa teknikoa eta aplikatu beharreko arau-esparrua aztertuta, kontuan hartuta ingurumen in-paktuaren azterlana izapidetzeko dauden gabeziak eta irregulartasunak, proiektu horien etetearen alde egiten dugu". Bestela, "hala badagokio, ingurumen in-paktuaren adierazpenaren eskaerari buruzko txosten negatiboa ematearen alde egiten dugu, bi proiektuak ez justifikatzeagatik, jendaurrean jarritako alternatibak ez egokitzeagatik

eta ingurumen in-paktu kritikoa eta ikututako lurraldearen karga ahalmenekin bateraezina izateagatik".

Plataformatik gogorarazi dutenez, bi enpresen sei zirkuituko linea egitasmoek Artaxoa eta Gabiria artean paraleloan doaz. Sakana barne hartzen duen 92 km-ko tarte horretan "80 metro-ra arteko altuera duten 431 dorre jarriko lirateke REEren 192 eta Forestaliaren 239". Plataformatik azaldu dutenez, REEren egitasmoa egiteko Sakanan 81 dorre jartzea aurreikusen da, Forestaliaren proiektuak, berriz, 96 dorre beharko litzuke.

Lurkide konpromisoa 192 erakundek izenpetu dute. Bakoitzari bi egitasmoetako batean jarriko litzatekeen dorre baten tokia "eman" diote. "Gure lurraren azalean iltzatu nahi duten dorre bakoitzeko, gure eskualdean talde batek hori defendatzeko konpromisoa hartzen du. Igandean, 11:00etan, dagokien tokira joan eta argazkia aterako dute. Gainera, beraien inguruan proiektuei buruzko informazioa emanen dute eta plataformarekin batera erabakitzen diren ekintzetan parte hartuko dute".

## Egitaraua

- **11:00** Talde bakoitza bere dorrera joan eta argazkia egin.
- **12:00** Elkarretaratzea Etxarri Aranatzeko plazan.
- **12:30** Ekitaldi nagusia, giza puzzle erraldoia.
- **13:00** Kale animazioa.
- **15:00** Herri bazkaria.
- **17:00** Argazki guztiekin egindako muntaiaren proiektzioa.
- **Ondoren**, festa giroa iluntzera arte.

BAKAIKUARROK HERRI KOOPERATIBA  
BAKAIKUKO DENDA

## LAN ESKAINTZA: LANALDI ERDIKO BI LANPOSTU

Jakina denez, bakaikuarrok herri kooperatiba bat sortu dugu herriko denda kudeatzeko. Hurrengo asteetan kooperatibaren aurkezpena egin eta bazkideak lortzeari ekingo diogu.

Bitartean, herri dendarako bi langileren bila gabiltza. Iragarki honen bidez, lanposturako deialdia egin eta hautaketa prozesua abiatzen dugu.

**Interesa baduzu, deitu 623 019 026 telefonora edo idatzi [bakaikuarrok.koop@gmail.com](mailto:bakaikuarrok.koop@gmail.com) helbidera.**

Informazio gehiago:

<http://www.bakaiku.info/denda-lan-eskaintzak>







Teilatua berria duen eraikinean beheko solairua egokitzeko lanak eginen dira aurtan.

# Eskolen eraikina eta denda

Bakaikuko Udala bi espazio horietan dago zentratuta gaur egun. Ikastetxea zenaren teilatua berriro ondoren, beheko solairua egokitzeari ekinen diote aurki. Nasuvinsarekin bi etxebizitza egiteko hitzarmena sinatuko du. Denda, festetarako

**BAKAIKU**  
Dagoeneko despedituta daude eskola zeneko teilatua berritze-lanak. Eraikineko beheko solairuan haur eta gazteendako txoko bat eta erabilera anitzeko gela bat sortu nahi dituzte. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontuan 125.000 euroko diru partida dago, EH Bilduk aurkeztutako emendakin bat onartu eta gero. Egoitz Urritza Lazkoz alkateak azaldu duenez, "diru horri dagozkion lanak azarorako despedituta egon behar dute. Dagoeneko lanen proiektua egin dugu eta lanak emateko deialdia egina dago". Gobernuaren diru horretaz aparte Bakaikuko Udalak aurtengo aurrekontuetan (452.675,11 euro) lan horiek egiteko beste 130.000 bat euro jaso ditu. "Transferentzia bidez jasoko dugun diruarekin oinarritz-

koak diren lanak eginen ditugu, azarorako justifikatuta egoteko. Eta udalaren diruarekin gainontzeko lanak", azaldu du alkateak. "Horrela, ia dena despedituko genuke. Paretan isolamendua eta leiho berriak jartzea faltako

litzateke" gaineratu du. Urritzak gehitu duenez, isolamendu lanak egiteko Next Generation deialdi batera proiektua aurkeztu du udalak, eta erantzun zain daude.

Bakaikuarrak eraikin bereko lehen solairua konpontzearen

alde daude. Horregatik, Bakaikuko Udala Nasuvinsarekin elkartu eta aurre hitzarmen bat sinatu zuten, batzarraren oniritzia jaso zuena. Enpresa publikoko teknikariek bideragarria ikusi dute han bi etxebizitza eraikitzea. Hitzartutakoaren arabera babes ofizialeko etxebizitzak lirateke, alokairura bideratutakoak. "Orain hitzarmena gehiago zehaztu behar dugu. Lanak egin ondoren, etxebizitzak Nasuvinsak kudeatuko ditu. Bere inbertsioa berreskuratu arte, etxebizitzak haien esku zenbat urtez egonen diren zehaztu behar da, esaterako. Momentuz jasota dago Nasuvinsak lanen %85 bere gain hartuko zuela eta udalak %15. Baina teilatua konpondu dugunez, kopuru hori jaitsiko da", zehaztu du alkateak. Gobernuaren enpresak, etxeko, gehienez 50.000-60.000 euroko inbertsioa aurreikusten du. Udalaren ekarpena, guztira, 35.000 euro ingurukoa litzateke.

## Denda eta auzolana

Zegoen bakarra itxi ondoren, bai udalak bai herritarrek beharrezko jo zuten herrian denda bat izatea. Udalak Maldai kaleko 3. zenbakian bajera bat erosi zuen han denda kokatzeko. Hura denda bihurtzeko lanak dagoeneko despedituta daude. Haiek egiteko 48.000 euro bideratu ditu udalak eta beste 20.000 euro hozkailuak eta bestelakoak erosi eta denda janzteko. Horiek erosteko bidean dago udala. Bitartean, bakaikuarrak denda kudeatuko duen kooperatiba sortzeko lanean segitzen dute. Urritzak azaldu duenez, "lan horiek aurreratu ta dituzte. Bi langile lanaldi erdian ariko dira. Eta festen aurretik zabaldu nahi da".

Dagoeneko hainbat bakaikuarrak egin dute herriaren alde urtean egin behar dituzten bost orduko lanak. Udalak deialdia egiten segituko du. Baina irailean auzolanik egin ez dutenek udalaren jakinarazpena jasoko dute. Hala ere, alkateak bakaikuarrak ekimena hartzera gonbidatu ditu: "auzolanak ez dira bakarrik lan fisikoak. Esaterako, herritar batek festetan haurrentako jolasak eginen ditu auzolanean. Berak proposatu zuen, udalean egoki jo genuen eta horrela eginen du auzolana. Udalak deialdiak egiten segituko du, baina jendeak egin diezazkiola proposamenak udalari".

## Osasun zerbitzua

Bakaikuarrak herriko kontsultategiarekin arduratuta daude, "gero eta zerbitzu gutxiago dagoelako". Aspaldi astegun guztietan zegoen zabalik. Asteazkenak ixten hasi ziren, egun horretan medikua eta erizaina etxeetara bisitak egin eta Etxarri Aranazko osasun etxean bilerak zituztelako. Pandemiarekin kontsultategia astearte eta ostegunetan 11:30etik 15:00etara zabalzera pasa zen. Iturmen-din egunero daude eta Urdiainen astelehen, asteazken eta ostiraletan 08:00etatik 11:30era.

Medikuarekin bildu eta esan zien beste bi egunetan etxeetara ere joaten zela. Eta beti Iturmendira joateko aukera dagoela, baita Bakaikun hitzorduak bukatzen direnean ere. "Adinekoak gaixotzen badira ezin da hurrengo egunera arte zain egon, eta Iturmendira joateak jendea-ri osasun zerbitzurako sarbidea asko zailtzen dio. Familia mugiarazi behar dute edo oinez joaten dira Iturmendira", azaldu du alkateak.

**PORTUKO**

Altsasu:  
948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz:  
948 460 988

**BiLTOKi**  
TABERNA • JATETXEA

**Eguneko menua 11 €**

**Menu berezia 15 €**

Telefono berria:  
948 562 348 • Altsasu

**kaxeta**  
LIBURU-DEIA

**EHko mapa salgai**  
(108x97 cm)

fotokopia@kaxeta.net  
628 542 519 | 948 460 477

## KOLABORAZIOA

## Hizkuntza bilakabide zenbait

## JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Hizkuntzalaria, eta hizkuntza bera ere, baino lehenagokoa da hitzuna eta honek sortu zuen hizkuntza noizbait, hiztun agertu zenean. Eta sortze hori ez zen aurretik irudikatutako arau edo estrategia jakin baten araberakoa izan. Beharrak sortuko zuen, komunikatzeko beharrak, eta momentuan momentuko hizkuntza gertaera bakoitza, dela lexiko mailakoa, dela morfologia edo sintaxi mailakoa, unean uneko komunikatzeko beharretara egokituz joanen zen.

Hiztunak keinuz eta soinu burutuko zituen bere lehen komunikazio edo hizkuntza urratsak eta geroago ekinen zion hizkuntza gertaera horiek ahotik eskura igarotzeari, hots, euskarri fisiko eta solido batean burutzeari. Ahotik beste baten belarrira eta honek entzundako moduan, edo garunetik zuzenean, euskarri ezberdinetan burutuko zituen hizkuntza gertaera haiek: harria, hezurra, buztina, metala, larrua, papiroa....

Hortik aurrera, hizkuntza bat bera izanik ere, jatorrizkoak izan daitezkeen hizkuntza gertaerek

bilakabide ezberdinak izan dituzte, askotan hizkuntzaren ekonomia bezala ezagutzen dugun gertaera helburu izanik. Bilakabidea esaten diot nik jatorrizkotako jotzen dugun hizkuntza gertaeraren bilakaera edo eboluzioari. Jesus Ondarra bakaikuarrak toponimoei buruz ari dela, higadura eta "ez bilakabidea; ez behintzat bilakabide naturala" dela haien eboluzioa esaten du. Lexikoari dagokion neurrian maiztasun gehiagorekin, jatorrizkotako hartzen ditugun hitz batzuek era paradigmaticoan gertatzen dela aipatu bilakaera edo eboluzioa erakusten dute.

Sakanako herrietako euskal hizkeretan argi eta garbi ikus dezakegu nolako urratsak jarraitzen duten jatorrizko zenbait hitzek, urrats ezberdinak gainera zenbait kasutan eta herriko multzokaturik.

Baina, Sakanako gertaerekin hasi baino lehen, ikus dezagun lehen-lehenik, Europa mendebaldeko hizkuntza ezberdinetan ere horrelakoak gertatzen direla.

*Egipto* estatu izena eta *egiptano* ("egipcio") bere jentilizioa hartzen baditugu

adibide moduan, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren jasota dagoen *ijito* (buhame, motxaile) izenaren jatorria zein izan daitekeen hizkuntza ezberdinetan azaltzeko, ondorengo emaitzak ikusiko ditugu:

- Euskara batuak, ondorengo bilakabidea erakusten du: *Egipto* > *egito*/*ejito* > *ijito*. Azken urratsak, hasierako /e/ erdiko bokalaren itxiera erakusten digu, beste batzuetan zenbait euskal hizkeretan gertatzen den bezala: *inbidia* (< "envidia"), *izkina* (< "esquina"), *iruzki*/*iguzki* (< eguzki), *iztupa* (< "estopa")...

Sakanako euskal hizkeretan, berriz, bilakabidearen azken urratsa ezberdina da: *Egipto* > *egito*/*ejito* > *jito*. Aferesia edo hasierako bokalaren erorketa da gertatu dena.

- Gaztelaniak, aipatu estatu arabiarren jentilizioetako bat, egiptano, hartu du jatorria: *egiptano* > *egitano* > *gitano*. Bistan da, amaierako urratsean aferesia gertatu dela kasu honetan ere.

- Ingelesak ere jentilizioa, egyptian, erabili du jatorrizkotako: *egyptian* > *egypti* > *egyptcy* > *gypsy*. Amaierako urratsean, beste behin, aferesia buruturik.

Bistan da, orduan, euskara, gaztelania eta ingelesa jatorri berdinetik abiatu direla, Egipto estatu arabiarren izenetik. Jatorri komun honek erakusten digu noizbait oso zabaldurik izan dela Egiptotik zetorrela herri ibiltari honen kideen izena, egun jatorria Indian duelako hipotesiak jarraitzaile gehiago baditu ere.

Bilakabidea zela hitz zenbaiten eboluzioa nioen lehentxeago eta horixe ikus daiteke Sakanako euskal hizkeretan modu oso argian. Eta euskararena soilik ez dela horrelako jokabidea nabarmentzeko, oraingoan latineko izenordain batetik (ego) abiatutik, italiarrek eta gaztelaniak Sakanako euskal hizkeren moduko bilakabideak izan dituztela ikusiko dugu singularreko lehen pertsonako

izenordainarekin, *e*  $C_{erorkorra} V \rightarrow eV \rightarrow iV (\rightarrow yV)$ , non C kontsonante eta V bokala diren:

- ego* > *eo* > *io*. Hauxe dugu aipatu izenordainaren bilakabidea latineko formatik abiatuta. Lehenik, bokal arteko kontsonante herskariaren (/g/) erorketa eta ondoren hasierako erdiko bokalaren (/e/) itxiera /i/ bihurtuz. Hauxe italiararen bilakabidea.

- ego* > *eo* > *io* > *yo*. Italiararen kasuan bezala lehen bi urratsetan eta bokal itxiaren kontsonantizazioa azken urratsean, gaztelaniak baliatu duena.

Ez izenordainaren kasuan euskarak, baina bai bilakabide horren urrats berberak direla baliatzen dituenak Sakanako zenbait euskal hizkerak esanen dut, egia bada ere bilakabide ezberdinetan multzokaturik ageri zaizkigula aipatu hizkerok:

- egon* > *eon* > *ion* > *yon*. Hauxe dugu aipatu berri dudun latinetik gaztelaniarako bilakabidearen berdina eta Etxarri Aranatzan, Lizarragan, Unanun, Lakuntzan eta Burundan baliatzen da.

- egon* > *eon*. Arruazutik eta Uhartetik ekialdera. Bokal arteko kontsonante herskaria erori baino ez.

- egon* > *eon* > *oon*. Dorraon eta Arbuzun. Aurrekoan bezala lehen urratsa eta, ondoren, bigarren bokalaren geminazioa ( $V_1V_2$  -eo- >  $V_2V_2$  -oo-).

Eta bilakabide berbera erakusten duten beste hainbat adibide ditugu Sakanako euskal hizkeretan, zeinetan errepikatu egiten diren herri multzoetan:

- erakutsi* > *eakusi* > *iakusi* > *yakusi* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- erakutsi* > *eakusi*. (Arruazu, Uhartete)

- erakutsi* > *eakusi* > *aakusi* (Dorrao, Arbizu)

- eraman* > *eaman* > *iaman* > *yaman* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- eraman* > *eaman* (Arruazu, Uhartete)

- eraman* > *eaman* > *aaman* (Dorrao, Arbizu)

- erantzi* > *eantzi* > *iantzi* > *yantzi* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- erantzi* > *eantzi* (Arruazu, Uhartete)

- erantzi* > *eantzi* > *aantzi* (Dorrao, Arbizu)

- erantzun* > *eantzun* > *iantzun* > *yantzun* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- erantzun* > *eantzun* (Arruazu, Uhartete)

- erantzun* > *eantzun* > *aantzun* (Dorrao, Arbizu)

- erauntsi* > *eauntsi* > *iauntsi* > *yauntsi* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- erauntsi* > *eauntsi* (Arruazu, Uhartete)

- erauntsi* > *eauntsi* > *aauntsi* (Dorrao, Arbizu)

- erosi* > *eosi* > *iosi* > *yosi* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- erosi* > *eosi* (Arruazu, Uhartete)

- erosi* > *eosi* > *oosi* (Dorrao, Arbizu)

- edan* > *ean* > *ian* > *yan* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- edan* > *ean* (Arruazu, Uhartete)

- edan* > *ean* > *aan* (Dorrao, Arbizu)

- edozein* > *eozein* > *iozein* > *yozein* (Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)

- edozein* > *eozein* (Arruazu, Uhartete)

- edozein* > *eozein* > *oozein* (Dorrao, Arbizu)

## DUELA 25 URTE...



## Amaiur akordeoi orkestra

Orkestra 16 eta 23 urte arteko 20 akordeoilarik eta bi perkusio jolek osatzen zuten eta Angel Luis Goñik zuzentzen zuen. Lakuntzako musika eskolan instrumentua praktikatzeko modu gisa sortu zen orkestra eta luze zeraman lanean. Haren helburua Nafarroako folklore musikaren eta egile klasiko askoren konposaketan bitartez entretenimendua eta gozamina eskaintzea zen.

Latinetik	<i>ego</i> > <i>eo</i> > <i>io</i> <i>ego</i> > <i>eo</i> > <i>io</i> > <i>yo</i>	(italiera) (gaztelania)
Euskara jatorrikotik Sakanan	<i>egon</i> > <i>eon</i> > <i>ion</i> > <i>yon</i>	(Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, Burunda)
	<i>egon</i> > <i>eon</i> <i>egon</i> > <i>eon</i> > <i>oon</i>	(Arruazu, Uhartete) (Dorrao, Arbizu)


# Euriteek kaltetutako pistak konpontzera

Ibar hondoko herrietan uholdeak izan ziren abenduaren 10ean. Unanun eta Dorraon euriteek kalte handiak eragin zituzten dermioko hainbat pistetan. Horiek konpontzeko kontzejuek udalaren bidez dirulaguntza eskatu dute

UNANU / DORRAO

Aspaldiko uholde handiena izan zen abenduaren 10ekoa, makina bat kalte sortu zituena. Nafarroako Gobernuak herrialdean euriteek eta uholdeak kaltetutako 133 udalerrien zerrenda atera zuen eta han Sakanako 15 udalerrak zeuden. Udal eta kontzejuek Nafarroako Gobernuari kalteen berri eman zioten eta haiek zenbatekoa kalkulatu zuten. Unanuko Kontzejuak Beriaingo pistan egindako kalteen berri eman zuen. Dorraokoak, berriz, lau pistatan kalteak zituela adierazi zuen: San Pedro, Gaztanei, Alkarte, Frontona eta Elizbide. Dorraoko Kontzejuko presidente Idoia Resano Igoak azaldu zuenez, "pista batzuetan izugarriko txikizioa egin zen, erreka ondoetan eta bestetan ere".

Foru administrazioak kalteen balorazioa egin ondoren toki erakundeei jakinarazi die Nafarroako eta Espainiako gobernuen laguntza jasoko dutela eta lanak



Unanu eta Dorrao.

erdibana pagatuko dituztela. Beraz, toki erakundeendako ez du batere kosturik izaneren pisten konponketak. Bi kontzejuek ez dute batere arazorik izan Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskaera egiteko, bai, ordea, Es-

painiako Gobernuarekin. Izan ere, erakunde horrek ez ditu kontuan hartzen kontzejuak, eta udalak eskatu behar dute dirulaguntza. "Egoeraren aurrean Nafarroako Gobernuak ez zizkigun erantzun asko eman. Korrika eta presaka Ergoienako Udalak kontzejuen lanen kudeaketa mandatua onartu behar izan du dirulaguntzak jaso ahal izateko. Beraz, Ergoienako Udalak eskatu du dirulaguntza eta bera izanen da bost pisten konponketen arduraduna", azaldu du Resanok, gaineratuz, "laguntzak ematen badizkigute berehala konpondu ditugu pista horiek".

Bestalde, bi kontzejuek erabaki dute bi herriak lotzen dituen bide bat konpontzea: Dorraoko elizan hasi eta Unanuko Dermiora joaten den partzelariako bidea. Bidea jendeak paseatzin erabiltzen du, eta abeltzainek ere. Oso hondatuta dago eta Ergoienako Herri Berritze planaren bidez egiten da.



Urbitate azalpenak ematen. PLAZAOLA

## Ibarreko bizikleta ibilbiderako pausoak ematen ari dira

Itxasperrin ospatu zen Plazaola bide berdearen eguneko egitarauaren barruan, Sakanako Garapen Agentziako Turismo teknikari Paki Urbitate Cabrerak Sakanako bizikleta bidea proiektua aurkeztu zuen. Urbitatek proiektuaren aurrekari berri labur ematearekin batera, egitasmoa gaur egun zein puntutan dagoen eta, bide batez, bizikletendako ibilbide hori nondik joanen den azaldu zuen. Turismo teknikariak jakinarazi zuenez, "Sakanako Mankomunitateak lana eman ondoren, gaur egun ibilbidearen eraikuntza egiten ari da Cima ingeniari enpresa. Eta, bitartean, ibilbidea egiteko hainbat finantzazio bide aztertzen ari gara".

## Arruazu errepide zaharreko zubiarekin zer egin aztertzen

Arnazko zubia egoera kaxkarrean zegoen, harri batzuk eroriak zituen eta joan den urtean indartu zuten arbazuarekin. Uharteko Arakil eta Arruazu artean dagoen errepide zaharreko zubia ere egoera txarrean dago. Gainera, handik Sakanako bizikleta ibilbidea pasako da. Arruazuko Udalean zubiarekin zer egin aztertzen ari dira. Bi aukera dituzte mahai gainean. Aukera bat da udalak zubia kendu eta haren ordeztu altzairuzko bat jartzea. Beste aukera da Nafarroako Gobernuari aitortaraztea zubia berea dela, eta, berea denez, foru administrazioak konpon dezala. Gorka Ovejero Ganboa alkateak gaztigatu duenez, "abenduko uholdeekin gehiago hondatu zen zubia". Bide batez, Arruazuko Udalak uholdeen prebentzioarako plana prest du. Babes Zibilaren oniritzia jaso ondoren udalak onartuko du.

Bestalde, arbazuaren kezka bere egin eta udalak Osasunbidari eskatuko dio mediku kontsultategiaren irekiera normaltzea. Gaur egun medikua etxetara joaten da gaixoak bisitatzea, baina arbazuarekin egoera normaldu eta pandemia aurretik bezala kontsultategia ostiraletan 13:00etatik 14:30era zabalik egotea nahi dute. Hala jakinaraziko dio udalak Osasunbidari.

## Hamar udal eta MANK telekomunikaziorik gabe

Animsaren informazio sistemak ziber erasoak jasan eta posta, webgunea, egoitza elektronikoa gabe utzi ditu

SAKANA

Nafarroako 179 toki entitatearen telekomunikazio ardurak Animsa enpresa publikoak. Lituaniatik egindako ziber erasoaren bidez haren sistemak sartu eta hura enkriptatu du. Ondorioz, Arakil, Irurtzun, Ergoiena, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko udaletako eta Sakanako Mankomunitatea posta elektronikorik, egoitza elektronikorik edota web orririk gabe geratu dira. Maiatzaren 18tik daude horrela.



Webguneetako mezua gaztelaniaz dago.

Zerbitzuak lehenbailehen berreskuratzeko bigarren fasean sartu da Animsa. Azaldu dutenez, "berreraikuntzan, segurtasuna lehenetsi behar da, azkartasunaren aurretik. Funtsezkoa da une honetan berriro erasorik ez hartzea". Zerbitzua berreskuratzeko "ez dago denbora zehatzik. Gure kasuan, zerbitzuak pixkanaka lehengoratzen joango garen arren, erabateko ebazpena prozesu luzea izan daiteke. Orain garrantzitsuena da berreskuratzea bermez egitea da". Animsaren [www.animsapamplona.es/entidades](http://www.animsapamplona.es/entidades) webgunean sartuz gero, ziber erasoak kaltetutako erakundeekin harremanetan jartzeko telefonoen eta e-posta helbideen berri ematen da. Altsasuko sarrerak erosteko lotura eta udal bilkuren bideo artxiboa erabilgarri daude.



Gazteen inkestaren ondorioak apirilaren 2an aurkeztu zituzten. @ALTSASUKOGA

# Kuadrillen prozesuko ondorioak ezagutarazi ditu gazte asanbladak

Herriko 14 eta 32 urte arteko gazteen artean inkesta zabaldu zuen Altsasuko Gazte Asanbladak. Ikasketei, lan merkatuari, aisialdiari eta gaztetxe eta gazte asanbladari buruz gazteek dituzten iritziak jaso dituzte

ALTSASU  
Gaztetxeaz eta gazte asanbladen egin beharrez hausnartu ondoren, Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) bere burua "gazte problematika ematen den esparru guztietan antolakuntza hedatzeko tresna gisa definitu" zuen, "Altsasuko gazte langile guztiak asanbladan barnebildu nahi ditugu". AGAk herriko gazteek ikasketak, lan merkatua eta etxebizitza arloetan dituzten beharren analisia egiteko eta gazteek gaztetxeaz eta gazte asanbladaz duten iritzia ezagutzeko kuadrillen prozesuari ekin zion 2021eko martxoan. 1990 eta 2008 urteen artean jaiotako kuadrillen artean inkesta zabaldu zuten eta 292 erantzun jaso zituzten. Pandemiaren testuinguruan egindako lanketa horretan AGAk onartu du ez dela gazte guztiengana iritsi. Prozesuak

emandakoa *Hamaika arazo, erro bakarra. Gazte langileok lehen lerroa* txostenean jaso du. Hura apirilaren 2an aurkeztu zuen eta kuadrillen artean zabalitzen ari da orain.

## Testuingurua

AGAk kideen iritziz, "krisi kapitalistaren testuinguruaren baitan ulertu behar dugu gure gaur egungo bizitza. COVID-19aren aitzakiarekin akumulazio prozesu berri bat has-teko egoera ezin hobea aurkitu du burgesiak. Miseria bizitzaren geroz eta esparru gehiagotara

**SAKANATIK KANPO IKASTEAK HILABETEKO BATAZ BESTE 460 EURO BALIO DU**

hedatzen ari da, aurretik askotan errotuta zegoen". Argi dute: "Ongizate Estatua posible egin duten baldintza ekonomiko eta arrazoi politikoen desagertpenarekin batera, berau desagertze prozesuan murgilduta dago. Gure gurasoek izan duten bizi eredu geroz eta urrunago ageri zaigu belaunaldi gazteoi". Bestalde, "etekinak eta etengabeko hazkunde oinarrian daukan sistemak" eragindako ekologia krisia ere ez dute begi bistatik galdu. Burgesiak ekonomia eta politika boterea eusteko langile klasearen kontrako oldarraldia hainbat modutan egiten ari dela ziurtatu dute. Politikari profesionalak kritikatu ondoren, "instituzio kapitalistetatik kanpo antolakuntza hedatzeko garaiak" direla adierazi dute.

Asanbladako en iritziz, "krisi garai honetan gazteengan ezar-

tzen ari den bizimodua etorkizuneko bizi ereduaren lehen zantzu bezala ageri zaigu". Eta bi esparru nabarmendu dituzte. Batetik, arlo ekonomikoan gazteria "subjektu debalatu" izatea (lan prekarizatuak eta aldi baterakoak, soldata debalatuak eta langabezia...). Bestetik, "arlo kulturean gazteria datorkion etorkizun gordinerako diziplina jartzen ari dira (errepresioaren gorakada, bizi eredu despolitizatuaren sustatzea, hezkuntzaren bitartez ematen den interben-tzioa...)"

## Ikasketak

Aurreko analisiaren zantzuak ikusten dituzte AGAkoek hezkuntzan: teknologia berrien gorakada, kontrolaren gorakada, zerbitzu publikoaren prezioaren gorakada, hezkuntzaren garestitzea, autoritarismoaren gorakada, hezkuntzaren kalitatearen beherakada... Gainera, "hezkuntzaren garestitze orokor bat dago, langile klasearen ikasteko aukerak murrizten ditue-na. Hezkuntza estatuaren aparatu bat denez, sistema kapitalistan ematen diren balore, jarrera, ideologia, zapalkuntzak... ematen dira ere hezkuntzan. Esaterako, individualtasuna, lehiakortasuna, edota autoritarismoa".

Sakanako Ikasle Abertzaleak egindako inkesta bat aipatu du AGAk. Han jaso zenez, ikasleen %48,93 klase partikularretara joan dira. Haietatik %97,1 ikastetxean lantzen ez den edukia eta ematen den materia ulertzeko joaten da aparteko eskolak hartzera. AGAtik gehitu dutenez, badira "elitizazioaren" ondorioz soilik gaintzeko ez, baizik eta nota altuena ateratzeko aparteko eskolak hartzen dituztenak ere. "Eta hor sartzen da ere gurasoen ikasketekiko figura autoritarioa". AGAren txostenean ibarrean dagoen Lanbide Heziketa eskaintza "urria" eta euskaraz ikasteko aukera urriak nabarmendu dituzte. Eta zehaztu dutenez, Sakanatik kanpo ikasteak hilabeteko batz besta 460 euro balio du.

**"LAN BALDINTZA PREKARIZATUAK, LANGABEZIA, SOLDATA DEBALUATUAK, ALDI BATERAKO LANAK..."**

## Lan merkatua

Esparru horretan AGAk kideek honako panorama zehaztu dute: "subjektu debalatu da gazteria. Lan indar debalatuak, lan baldintza prekarizatuak, soldata debalatuak, aldi baterako lanak, lan arriskuak, langabezia..." Inkestak bete dituztenen %87ak Sakanako batez besteko soldata baino gutxiago jasotzen du (2019an 25.297 euro). Gazteen soldataren debalazioerako hiru mekanismo zerrendatu dituzte: ikasketa dualak, kontraturik gabeko lanaldiak eta praktika kontratuak. Zehaztu dutenez, enpresetan praktikak egin dituztenen %76k ez du soldatarik jaso. Bide batez, soldaten genero arrakala salatu dute.

AGAkoez azaldu dutenez, aldi baterako lanek gazteengan sortzen duten "errealitate ekonomiko ezegonkorra" nabarmendu dute, horrek gazteen "bizi ereduaren eragin zuzena duelako. Ekonomia ezegonkortasunean bizitzeak eta soldata debalatuak izateak familia eta instituzioekiko ekonomia dependentziara garamatza, gure etxebizitza propioa edukitzea eragotziz".

Nabarmendu dutenez, aldi baterako lan kontratu gehien sinatzen dituztenak emakumezkoak eta pertsona migratuak dira. Bestalde, aipatu dute gazteen ehuneko handi bat langabezian egoten dira heldu izan aurretik. "Erreserba armada horrek, soldaten igoera blokeatzeaz aparte, akumulazio fase berri bat abiaraztekoan beharrezko lan indarra edukitzea dakar, eta horregatik da garrantzitsua beti langileriaren zati bat erreserban edukitzea. Hau da, langabezia estrukturala da, eta garaiaren arabera erreserbako armadako kideak handitu edo txikitzen dira".

## Etxebizitza

Gazte asanbladakoek azaldu dutenez, "lan merkatuak bizitzeko behar besteko dirurik ematen ez digunez, pobrezia estrukturala da gazteon bizitzaren ezaugarri nagusia". Eta, horregatik, familiarekiko ekonomia dependentzia dutela azpimarratu dute. Inkesta erantzun dutenen %28 bakarrrik bizi daiteke bere diru sarreretatik eta %55 nagusiki edo eskusiboki beste batzuen diru sarreretatik bizi da. Horrek gazteen emantzipazioa zailtzen duela eta "geroz eta

denbora gehiagoz etxebizitza familiarrean bizitzera kondentzen gaitu". Inkesta bete duten gazteen %65a familiaren etxebizitzan bizi da eta %80,7ari etxetik joatea gustatuko litzaioke. "Aipagarria da %48,2ak ez duela etxetik joatea lehentasun gisa hartzen, segur aski, ezartzen zaigun bizi eredu pobreak horretan pentsatzea ere ezinezkoa bihurtzen duelako". Bide batez, AGAk salatu du "sistema kapitalistan etxebizitza merkantzia gisa ageri" dela, "guztion ongizatea bermatuko duen eskubide bat izatetik urrun, eta merkatuaren logikan integraturik, soilik dirua duena izan daiteke eskubide horren jabe". Eta makina bat etxe hutsik daudela eta jendea kalean bizitzen dagoela gaineratu dute.

#### Aisialdia

AGAkoez gazteen aisialdia "dinamika kapitalistaren baitan" ikusi dute, "lan edota ikasketa prozesuaren osagarri bezala ageri zaigu aisialdia gazteoi. Gainera, ez daukagu gure aisialdiaren gaineko kontrolrik, enpresa pribatuek edota instituzioek kudeatzen dute, gu aisialdi eredu horren kontsumitzaile hutsak bihurtuz". Zehaztu dutenez, "gazteon aisialdian zentraltasun esparrua juerga da. Frustrazioak kanalizatzeko espazio adierazgarriena dugu (alkohol eta drogen kontsumoaren bitartez) baita ere gure behar afektibo eta sozialak asetzeko bilatzen dugu eta jendea kontsumitzeko produktu bihurtzen da. Horren arabera ere estatus sozial bat bilatzen da (gehien ligatzen duena, lagun gehiago dituen...)". Horren ondorioz, "inposatutako genero rolen erreproduktzioarako erre-



Pandemia hasi berriren aurkeztu zuten prozesua AGAkoez. @ALTSASUKOGA

minta baliagarriena da; norma-lean ez ditugun jarrerak azaleratzen baitira jai giroan eta gure arteko harremanak biolentoagoak dira. Horren adierazle nabarmena, erasoak gauzatzeko testuinguru paregabea sortzen dela izango litzateke".

Herriak aisialdirako espazioak izanik ere, "arazoa horien eskuragarritasunean dago. Alde batek, publikoak diren azpiegiturak

### INKESTATUEN %65 FAMILIAREN ETXEBIZITZAN BIZI DA ETA %80,7K ETXETIK JOATEA NAHI LUKE

ordaindu behar ditugu eta, bestetik, eskatzen ditugunean, milaka traba burokratiko jartzen zaizkigu. Beraz, 'publikoak' badira ere, ez daude guztion eskura eta geroz eta pribatizatuagoak daudela ikus dezakegu". Bestetik, ordaindu gabeko eta instituzioetatik kanpo gazteek beraien aisialdia kudeatzeko beharra ere azalarazi da. Premiazkoa da, bizitzako beste esparruetan bezala, gazte langileok aisialdi eredu kapitalistari kontrajarriko zaion aisialdi eredu propioa garatzen hastea, langileon interesei erantzungo diona". Sozializazioari dagokionez, norbere kuadrillaz aparte, beste gazteekin harremanak izatea "garrantzitsu" jo dute, "gazteon artean antola-

kuntza hauspotuko duen komunitatea sortzeko".

**Gaztetxeaz eta gazte asanbladaz** Kuadrillen prozesua Altsasuko gazteriaren eta gazte asanbladaren artean "hutsune" bat sumatzen zuelako abiarazi zuten AGAk: "orokorrean, gazte asanbladaren jarduna ongi eta beharrezkoa ikusten da, baina bertan parte hartzeko eta antolatzeko

### "AISIALDIAN ZENTRALTASUN GEHIEN HARTZEN DUEN SOZIALIZAZIO ESPARRUA: JUERGA"

arazo nabarmena dago". Inkestetako erantzun askotan AGA "talde itxi eta arrotz" gisa antzematen dutela esan dute gazteek. AGAtik gaineratu dutenez, "jende askok ez du bere egiten gazte asanblada eta gaztetxea, edota planteamenduak ez dira gazteengana iristen". AGAtik azaldu dutenez, prozesu bera "itxi" irudi horretatik ateratzeko lehen ahalegina da. "Gainera beharrezkoa dela gure helburuak betetzeko. Oso baliagarria izan da guretzako kritikak irakurtzea. Ildo beretik, pintxo poteen erronka antolatu dugu, gaztetxearekiko hurbiltasuna izateko asmoz". Beste antolakuntza forma baten bidez AGAn ahalik eta gazte gehien barnebidu nahi dituzte. Horregatik, ekonomia, komunikazioa, sozializazio, azpiegitura... taldeak sortu dituzte, "bakoitzaren konpromiso eta ezagutza mailen arabera" parte hartzeko aukera izan dezaten gazteek. Mahai gainean dute aldi behin Gazte Batzarrak deitzea, ahalik eta zabalenak izan daitezen eta asteazkenetan, 19:30ean, gaztetxean egiten diren asanbladetara joan ezin dutenei tokia egiteko.

AGAkoez kideek azaldu dutenez, "gizarte hau aldatu nahi badugu, kolektiboki antolatu behar gara, indibidualki ez baitugu ezer lortuko. Gazteok interes komunak ditugu eta horiek soilik gure artean antolatuz lortuko ditugu". Gaineratu dutenez, "kapitalismoaren logiketatik kanpo, balore kolektiboak bultzatuz, elkar laguntzazkoak, euskaltzaleak, balore askatzaileak..." lantzen eta "gazteria aktibatzen, antolatzen eta borrokarako tresnak ematen" segitu nahi dute, "gazteriaren beharrak asetzeko tresna izan behar gara".

## ¿QUÉ HACER PARA QUE LOS NIÑOS Y NIÑAS LEAN (MÁS) EN EUSKERA?

### HITZALDIA-TALLER-CONFERENCIA

#### NORK?

Sarua Bikendi. Asociación GALTZAGORRI Elkarte.

#### NORENTZAT?

Para familias y profesionales de la educación, cuidado y mediación. Para cualquiera que tenga interés en la literatura infantil y juvenil.

#### NOIZ?

7 de junio, martes, de 10:00 a 12:00 horas.

#### NON?

Casa de cultura de OLAZTI-ko kultur etxean.

#### IZENA NON EMAN?


Para participar en el taller hay que inscribirse en:

[sakana.euskara.teknikaria@gmail.com](mailto:sakana.euskara.teknikaria@gmail.com)

#### ZEIN DA HELBURUA?

Fomentar la lectura en euskera entre niñ@s y jóvenes.

Irakurketa euskaraz bultzatzea.



En castellano



Lakuntzar berriei aureskua dantzatu zieten plazan. Ondoren, bisita gidatu bidez udaletxea eta kultur etxea erakutsi zieten.

## Harrera beroa egin zieten lakuntzar berriei

Euskararen eta haren ezagutzaren garrantziaren berri eman zieten lakuntzar berriei. Anitzartean zerbitzuaren eta Txingurriye taldearen egitekoak azaldu zizkieten. Eskolak emateko boluntarioak Txingurriyen ongi etorriak izanen direla nabarmendu zuten

### LAKUNTZA

Lakuntzako Udalak eta Sakana Mankomunitateko Anitzartean eta Euskara zerbitzuek lakuntzar berriei harrera egin zieten larunbatean. Rita Torrico Muniz zinegotziak udalaren izenean ongi etorria eman zien. Torricok herrian bi hizkuntza hitz egiten direla azaldu zien: "niretako euskara ikastea ona izan zen, batez

ere, seme-alabei etxerako lanekin laguntzeko. Euskara jakiteak ere egunerokoan asko laguntzen dit". Izaskun Errazkin Beltza euskara teknikariak lakuntzar berriei azaldu zien euskarara hurbiltzeko migranteendako doako harreara ikastaroak eta euskara ikasteko dauden dirulaguntzak daudela. "Euskara aukeren hizkuntza, ate asko irekitzen" dituela nabarmendu zuen eta haien seme-alabek ezagutzearen garrantzia azpimarratu zuen. Lakuntzar gutzietei gogorarazi zien euskara "ikastetxean eta etxean ikasten dela, baina kalean erabiliz indartu egiten da. Zuen artean eta lakuntzar berriei erabiliz gero, guztion euskara indartuko da". Lakuntzar berriei euskara ikas-

teko eta erabiltzeko gonbidapena egin zien.

Begoña Zestau Baraibar kulturartekotasun teknikariak zerbitzuaren egitekoa zein den azaldu zuen: "hainbat jatorritako pertsonen topaketa sustatzeko jarduerak egiten ditugu, elkar ezagutzuz elkarbizitza positiborako pausoak emateko". Herri-tarrek egindako proposamenak landuz egiten dute hori.

Integrazioaren alde 2009tik lanean ari da Txingurriye taldea. "Kulturak trukatu, elkar laguntzen dugun pertsonak gara, eta herriko taldeetan integratzeko asko laguntzen du". Migratutako seme-alabei ikasketekin lagundu eta helduei gaztelania erakusten diete hiru boluntarioak. "Eskolatze egoki batek integrazio ona dakar", nabarmendu dute. Horretan lagundu nahiko luke tenak ongi etorriak lirakekeela gaineratu zuten Mari Jose Imirizaldu eta Ane Miren Iruretagoiena taldekideek. Igandeko azokan ere parte hartu zuten.

**ZESTAU AZALDU ZUEN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUAK JASOTAKO PROPOSAMENAK LANTZEN DITUELA**



Altsasun mozioa aztertzen zen bitartean kalean kontzentrazioa egin zen.

## Sendagile bakarra 9.305 pertsonarendako

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordirako sei mediku egon beharko lukete, asteazkenetik bakarra egonen da

### ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Oinarrizko Osasun Eskualdeko lantaldeak Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko alkateei jakinarazi dienez, asteazkenetik aurrera mediku bakar bat egonen da hiru herriendako. Sei sendagile egon beharko lukete, baina bakarra egonen denez, hura hiru herrietako larrialdiez arduratuko da soilik. Oposizio lehiaketaren bidez Altsasurako lau plaza atera zituen Nafarroako Osasun Zerbitzuak. Osasunbidetik maiztean hiru mediku etorriko zirela esan zuten, baina lantaldeak alkateei azaldu dienez, bi sendagileri eszedentzia onartu diete eta besteari zerbitzu eginkizuna. Beraz, mediku bakarra etorriko da Altsasura. Bitartean Altsasuko osasun etxearen atean egun bakoitzean zenbat mediku dauden iragartzen duen kartela jartzen ari dira azken astetan. Atzo bi mediku zeuden.

Lantaldeetik azaldu dutenez Olatzagutian medikuak egunero pasa beharko luke kontsulta, baina astean hirutan pasatzen ari da. Altsasun egon beharko luketen bost medikuetatik batek Ziordian hirutan kontsulta pasa beharko luke. Bestalde, pediatriako lanaldi eta erdi bete beharko litzateke, baina gaur egun pediatria bakarra besterik ez dago. Osasun eskualdeko langileek gaineratu dutenez, "profesional faltak zaintza ordutegiko arretari ere eragiten dio".

Lantaldeak alkateei jakinarazi dienez, "azken bi urteetan mediku falta ordezkapenekin

estali dute. Ondorioz, gaixoekegunero mediku bat izan dute. Horrek, luzera, gaixoen jarraipen eta segimendu galera dakar, haien osasun eta segurtasunean eraginez". Horregatik, Burunda mendebaldeko osasun eskualdeko langileek argi eta garbi diote: "gaixo eta profesionalendako egoera sostengaezin honetan ezinezkoa da Lehen Arretak eta gaixoeke merezi duten lan baldintzetan lan egitea". Horregatik, Lehen Arretako Gerentziari "egoera zail honi aurre egiteko premia neurriak" hartzea eskatu diote, baita "argibideak eta plan bat" heldu denari aurre egiteko.

Osasunbideko arduradunak Altsasuko osasun etxeko lantaldearekin atzo ziren biltzekoak. Bitartean, egoerarekin kezkatuta, hautetsiek bi bide hartu dituzte. Alde batetik, egoeraren berri eman eta hura salatzeko, EH Bilduk hiru alkatea eta eskualdeko osasun kontseiluko presidentearen agerraldia eskatu du Nafarroako Parlamentuan. Bestetik, Altsasuko alkatea osasun kontseilariarekin biltzeko eskaera egin du.

Bestalde, Nafarroako Osasun Plataformak osasun publikoak babesteko udaletan aurkeztutako mozioari oniritzia ematen ari zaizkie. Zerbitzu egokia emateko Osasunbidea beharrezko baliabidez hornituta egotea, plantillak finkatzea eta osasun enpresa pribatura deribazioak eta itunak etetea eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

# Sanfermin aurreratuak Nafarroa Arenan

**PILOTA** Joseba Ezkurdiak eta Unai Lasok igandean Iruñean jokatu duten Buruz Buruko finalak aparteko ikusmina piztu du. Final irekia, gogorra eta borrokatua aurreikusten da, pilotaren festa ederra

**Maider Betelu Ganboa** ARBIZU

Finalek beti pizten dute interesa, baina igandeko Buruz Buruko finalak sortu duen ikusmina apartekoa da. Nafarroak lehenengo aldiz hartuko duelako Buruz Buruko finala, agian. Edo Joseba Ezkurdiak eta Unai Lasok, bi nafarrek, jokatu dutelako. Nork daki. Ikusmin horren isla, material aukeraketara 200 lagun baino gehiago hurbildu zirela, eta igandean sekulako giroa espero da Iruñean. Finalak horrenbeste jende mugitzea "oso polita" dela adierazi zuen Ezkurdiak hautaketan. "Giro izugarria egongo da igandean" gaineratu zuen Lasok.

Lasok pilota biziagoak aukeratu zituen, eta Ezkurdiak motelagoak, eta biak gustura zeuden nahi zutena bilatu zutelako. Soilik bi egun izan dituzte Nafarroa Arenan entrenatzeko. Lasok azaldu zuenez "gustatu zitzaidan, bizia da, ni bezala". Ezkurdiak esperientzia gehiago du bertan, bi txapela irabazi baititu Nafarroa Arenan, 2018ko eta 2019ko Lau eta Erdiko txapelak, hain zuzen, eta gustuko du. "Frontoi gogorra da baina ez da jokatzeko zaila" azaldu zuen. Nafarroa Arenako instalazioak ikusgarriak dira, eta bertan jaialdi gehiago antolatu beharko zirela entzuten zen



Ezkurdiak eta Lasok asteazkenean egin zuten pilota aukeraketa. ASPE PELOTA

ikusleen eta pilota enpresetako teknikarien artean.

Final orekatua aurreikusten da, gogorra. Lasok azaldu zuen pilota biziagoak aukeratu zutelako "Ezkurdia frontisetik urrutia go mantentzeko. Hori izan behar da nire estrategia". Ezkurdiak, bere aldetik nola jokatu nahi duen "oso argi duela" esan zuen: "ekimena hartu beharra dut, Unai mugiarazi eta ongi defendatu". Faboritua nor den galdetuta, Ezkurdiaren iritzi "Unai da faboritago. Urte ikusgarria darama, eta hiru finalak jokatu-

ko ditu". Lasok Ezkurdia "zezena bezala" ikusten du, baina "finala parean" dagoela uste du, "biak oso ongi iritsi garelako". Buruz Buruko final ireki baten aurrean gaude.

Igandean irabaziz gero, hiruko koroa lortuko luke Ezkurdiak. Lau eta Erdiko, Binakako eta Buruz Buruko txapelak dituzten pilotarien klub preziatuan sartuko zen bederatzigarren pilotaria litzateke. "Sekulakoa" liratekeela aitortzen du, baina "jendearen maitasuna jasotzea da politena" bere ustez.

## Noelia Fundazioaren alde zumbathoian parte hartzeko deia

**ZUMBA** Larunbatean Zumbathoi Solidarioa antolatu dute Arbizon, egun osoko festa

Martxoan Sakana Bizirik taldeko Kepa Gordo, Alatz Agirre eta Ander Unzurrunzaga Uharte Arakildik San Migelera zortzi aldiz jarrian igo ziren, ekimen solidarioan. Ion Zazpe Irigarai irintarrak kolageno VI gabeziarengatik jaiotzeko muskulu-distrofia gaixotasun arraro eta degeneratiboa du, eta gaixotasun horren ikerketa sustatzen duen Noelia Fundazioarendako izan ziren ekitaldian lortutako 7.850 euroak.

Larunbatean Arbizuko kiroldegian antolatu den Zumbathoi Solidarioan jasotakoa ere Noelia Fundazioa bideratuko da eta bertan parte hartzera animatu dute. Katrin Gineak aurkeztuko du saioa. 10:00etan haur lasterketa solidarioa hasiko da –dortsalak 3 eurotan daude salgai–, eta ondoren txokolate jana izango da. 11:00etatik 13:00etara zum-



2019ko Zumbathoia, azkena.

ba master classa gidatuko dute Elena, Mayra, Eva, Carolina, Gado eta Leizadi monitoreek –dortsalak 5 euro–. Capoeira erakustaldia izango da ere. Festak arratsaldean izango du segida, 19:00etan Factoria DJ-k eskainiko duen saioarekin.

## TXIRRINDULARITZA Etziko Ziordiko Bizi festara gonbidatu du Mank-ek

Bizikletaren inguruan festa polita antolatu du Sakanako Mankomunitateak igandean Ziordiko txipudi parkean. 10:00etan abiatuko den bizikleta ibilbidearen ondoren, auzatea, Izaskun Mugiaren ipuinak, jolas herrikoiak, bizikleta konpontzeko tailerra eta Elkarri Laguntza elkartearen aldeko bigarren eskuko kirol materialaren bilketa izango dira.



Joan zen urtean Itxasperrin ospatu zen.

## Andra Mari podiumean

**SOKATIRA** Larunbatean Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketako finalak jokatu ziren Berriozarren. Andra Mari ikastolako hiru taldek hartu dute parte kadeteen txapelketan (280 kilo), eta finalean Andra Mari 3 hirugarren sailkatu zen, Antsoain A eta Amair taldeen atzetik. Andra Mari 1 laugarren sailkatu zen, eta Andra Mari 2 seigarren.



ANDRA MARI IKASTOLA

BURUZ BURUKO

FINALA

JARRAIPENA ZUZENEAN  
www.guaixe.eus-en

## Nafarroako Itzulia larunbatean dator Sakanara

San Migel igo beharko dute txirrindulariek. Etxarriko eskola lasterketa da beste hitzordua

Bi urteren ondoren, bueltan da afizionatuen mailako Nafarroako Itzulia, egutegi amateurreko proba entzutetsuenetako bat. 21 talde lehiatzen ari dira guztira, afizionatuen mailako talde eta txirrindulari onenak, nazioartekoak tartean. Lehiatzen ari diren txirrindularien artean lau sakandar daude: Laboral Kutxa-ko Ailetz Lasa ziordiarra eta Iker Mintegi altsasuarra, Ciclismo Riojanoko Andoni Ocaña eta Gomur Cantabria Infinitako Jon Gil lakuntzarra.

Nafarroako Itzulia atzo hasi zen, Zangozan, eta gaur, ostirala, Casedan hasi eta Larra-Belaguan despedituko den etapa dute aurretik (163,3 km). Bihar, larunbata, Sakanara helduko da. Lekuberrin hasiko da (13:40) eta berehala Madotzetik, Zuarrarratetik, Etxeberrira helduko da. Txirrindulariek Uharte Arakileraino joko dute (14:20), bertatik lehen mailako San Migel portua igotzeko (14:50). Uitz, Usategieta eta bestelako gainetatik barna, Berriobeitiko San Cristobal gaineko helmugara iritsiko dira. Azken etapa Iruñean jokatu da (124,8 km), igandean. Itzulia, "oso gogorra" izango dela diote txirrindulariek.

Bestalde, aipatzekoa da larunbatean, 16:00etan, 17. San Kiriko Txirrindularitza Saria jokatu dela Etxarri Aranatzan, eskolen mailako proba, Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatuta. Ginkana probak izango dira lehenak, eta ondoren lasterketak hasiko dira.

### Ekain Imaz hirugarren

Igandean kadeteen mailako lasterketa jokatu zen Zestoan, Gaztetxoak Txapelketarako baliagarria. Quesos Albeniz-Burundako Ekain Imaz bikain aritu zen eta hirugarren sailkatu zen, kadeteen lehen urteko onena, merezitako podiuma lortuz.

# "Denboraldia kontentu egoteko modukoa da"

**IOSU MENDIOLA MARAÑON** CBASK JATORMAN TALDEKO ENTRENATZAILEA

**SASKIBALOIA** Bigarren Maila Autonomikoko CBASK Jatorman taldea play-offetan erori da, Lauko Finalaren atarian, baina denboraldiaren balorazio ona egin du entrenatzaileak

### Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Bigarren Maila Autonomikoko CBASK Jatorman taldearendako larunbatean bukatu zen 2021/2022 denboraldia. Ligan zazpigarren sailkatu eta gero, bigarren fasean lehen eta zortzigarren taldeen arteko play-offean erori zen Iosu Mendiola Marañoen arbitruak zuzentzen duen saskibaloia talde altsasuarra, Humiclima taldearen kontra.

**Final Laukoan ez sartzea pena da, baina horrek ez du esan nahi denboraldi txarra egin duzuenik, inola ere.**

Egia esan, aurtengoa nahiko emaitza ona izan da. Bigarren Maila Autonomikoko liga erregularrean zazpigarren sailkatu ginen, eta horregatik lehen eta zortzigarren postuen arteko play-offetan ligan bigarren sailkatutako taldearen kontra jokatzea egokitu zitzaigun, Berriozargo Humiclimaren kontra. Play-offetan ez dugu emaitza ona lortu, baina denboraldiaren irakurketa osoa egin behar da. Aurtengoa denboraldi berezia izan da. Joan zen urtean Lauko Finalen bigarren izan ginen, emaitza ikusgarria, baina aurten taldea asko aldatu zitzaigun, zenbait jokalarik taldea utzi zutelako eta berriak hasi zirelako. Beraz, aurreko urteko emaitza berdintzea ez zen erraza. Horri gehitu behar zaio denboraldiko azken txanpan lesioekin zorte txarra izan dugula. Azkenean, Lauko Finalaren atarian geratu gara, baina asteburuko une txarra pasata, denboraldiaren balorazioa ez da txarra, inola ere. **Aurtengoa berregokitzapen denboraldia zela esan zenuen hasieran. Pazientziatz hartuta eta lanak egoki eginez, liga erditik emaitza onekin hastea aurreikusten zenuen. Eta horrela izan da.**

Bai (kar, kar). Hasieran egoera zailagoa ikusten nuen, baina gauzak ongi eginda denborarekin emaitzak hobetuko genituelako



CBASK Jatorman taldeko jokalariek eta entrenatzailea. CBASK JATORMAN

## "LAUKO FINALAREN ATARIAN GERATU GARA ETA PENA DA, BAINA DENBORALDI ONA EGIN DUGU"

itxaropena nuen, eta hala izan zen. Lehenengoei eta hirugarrenei ere irabazi genien. Humiclima kenduta, ligan talde guztiei irabaztea lortu genuen. Hau datorren denboraldiari begira pozik egoteko da.

**Humiclima Berriozarko talde beterranoa eta gogorra da, azken urteetan beti Final Laukoan sartzea lortzen duena.**

Bai. Jokalarien mailaz aparte, play-offak bezalako partida erabakigarriak jokatzeke esperientzia hori behar duzu. Humiclimako jokalariek halako ehunka egoeratan egon dira eta baita halakoak baino zailagoetan ere, eta gureak bezalako jokalariek gazteen kontra jokatu, ezberdintasun hori nabaritzen da. Hori izan da, nire ustez, euren kontra jokatu genuen kanporaketaren gakoa eta horregatik ezin izan dugu irabazi.

**Humiclimaren kontrako play-offean, joanekeo partidaren 52 eta 58 galdu zenuen, Zelandin. Lauko finalerako sailkatzeko itzuliko partida zazpi punturen aldearekin irabazi beharra zenuen, baina Humiclima 98 eta 50 gailendu zitzaizuen.**

Zelandiko joanekeo partidaren erakutsi genuen bi taldeen artean ez dagoela halako alderik, hau da, Lauko Finalerako sailkatzeke aukerak bagenituela. Larunbateko Berriozarko itzuliko partidara konfiantzarekin joan ginen, eta hasieratik zazpi puntu horiek ateratzen hastea espero genuen, partida hobe joatea, baina gaizki hasi eta gaizki ibili ginen partida guztian barna, ezin buelta eman. Ez zegoenez modurik, azkenean markagailua ere joan zitzaigun. Ez zitzaigun partida ongi atera.

**Ligan zazpigarren izan zineten, baina San Ignacio liderretik lau puntu eskasera, liga estua izan dela erakusle.**

Aurten, egia esan, oso berdindua egon da liga, eta hori kontentu egoteko modukoa da. Azkenean, gurea talde ia berria zen, aldaketa askorekin, eta goian egon gara. Uste dut hurrengo denboraldian abantaila hori izango

dugula. Printzipioz taldea ez da apenas aldatuko, eta horrek esan nahi du aurtengo emaitza berdindu daitekeela, edo hobetu. Beraz, alde horretatik, pozik gaude.

**Bigarren Maila Autonomikoko 2022/2023 denboraldirako noiz hasiko zarete lanean?**

Abuztuaren bukaera aldera hasiko gara entrenatzen, baina nik aurten Bigarren Maila Autonomikoko taldeko lehen entrenatzaile postua utziko dut. Laguntzaile gisa jarraituko dut, baina beste entrenatzaile bat bilatzen ari gara. Izan ere, datorren denboraldian nesken senior talde bat aterako dugu, eta ni izango naiz talde berri horren entrenatzailea.

**Aspaldiko nahia zen nesken senior mailako talde hori sortzea.**

Urte dezente daramatzagu emakumezkoen senior taldea ezin atera, eta talde honen aldeko apustua egiteko gogotsu nago, nesken proiektua bulkatu beharra dagoelako. Bigarren Maila Autonomikoko mutilen taldeak ongi jarraituko du, nukleo edo oinarria badagoelako. Nik ahal dudanean laguntzen jarraituko dut, baina entrenatzaile berri batekin gauzak antzeko jarraituko dutelakoan nago, jokalariek badakitelako azken bi urte hauek nola joan diren. Nesken taldeak norbait hor jartzea behar zuen, eta pozik eta gogotsu nago.

**Altsasuko CBASK Saskibaloia klub oso osasuntsu dago: talde asko, emaitza onak, emakumezkoen senior talde berria...**

Bai, egia esan klubaren martxarekin pozik gaude. Jendea saskibaloiarekin engantxatzen ari dela iruditzen zait, eta hori da garrantzitsua. Geroz eta haur gehiago hasten dira saskibaloian, eta hori da albisterik hoberena, horrek bulkatzen eta eragiten duelako goiko taldeak atera ahal izatea.

**Larunbatean saskibaloia festa antolatu du CBASKek 10:00etan Zelandin. 3x3 partidak, jolasak eta zozketak izango dira eta Altsasu klubean sortutako jokalariek handi bat omenduko duzue, Naiara Diez. Denboraldiari bukaera emateko festatxo da, klubekoei eta saskibaloian probatu nahi dutenei irekia. Politza izango da, baita Naiara Diezen omenaldia ere. **Naiararen ibilbidea jarraitu duzu?** Jakina, aspalditik. Altsasutik atera den jokalaririk ospetsuena da, Iñigo Zabaloren batera.**



# I. Alzheimer lasterketari harrera bikaina

**ATLETISMOA** Ia bostehun pertonek parte hartu zuten Felipe Lezea Fundazioak Dantzaleku Sakana eta Josefina Arregi Klinikaren Lagunak Elkartearekin elkarlanean antolatutako I. Alzheimer Herri Lasterketan

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Aurreikuspenak gainditu ziren. Hori nabarmendu zuen behin eta berriz Felipe Lezea Fundazioako presidente Joseba Arreguik. Fundazioak Dantzaleku Sakana atletismo klubarekin eta Josefina Arregi Klinikaren Lagunak Elkartearekin elkarlanean antolatutako I. Alzheimer Herri Lasterketa eta oinezko martxa arrakasta itzela izan ziren.

*Zure oroitzapenak zeharkatzen* lelopean antolatutako proba ez lehiakorrean 481 pertonek parte hartu zuten guztira, batzuk 8 km zituen oinezko martxan, eta besteak 9,5 km zituen herri lasterketan. Lasterketaren helburu nagusiak Alzheimer gaixotasuna gizarteratzea, kirola eta ohitura osasungarriak sustatzea eta Josefina Arregi Klinikako laguntza ziren. "Altsasu, Sakana eta Nafarroaren erantzunak gure aurreikuspen guztiak gainditu ditu" azaldu zuen Joseba Arreguik, oso eskertuta.



Adin guztietako jendeak parte hartu zuen oinezko martxan, baita lasterketan ere.

Igande goizeko bero sapari aurre eginez, lehendabizi oinezko martxa abiatu zen Josefina Arregi Klinikatik, 11:00etan, Sakanako Trikitixa Eskolako trikitilarien doinuak lagun. Familia osoak ikus zitezkeen bertan,

belaualdi ezberdinak elkarrekin, Altsasuko txokoak lasterketarako propio egindako kamiseta berdez koloreztatuz. Besteak beste, Otadia, Basomutur, Larrezabal, Ulaiar Txiki, Murgilarte eta Baikolar lotu zituen martxak,



Irantzu Gonzalez dantza eskolako bukaerako ekitaldia.

harrera ona izan zuena. Eguerdian herri lasterketan parte hartu zuten korrikalariak abiatu ziren klinikatik. Herri guneari guztiek batera buelta egin ondoren, hilerri parean hasi zen benetako lasterketa eta hortik aurrera oinezkoen ibilbide berbera osatu zuten korrikalariak. Proba ez lehiakorra zenez, ez zen sailkapenik egin.

Lasterketa eta martxa klinikaren kanpoaldean despeditu ziren, eta Irantzu Gonzalez dantza eskolako talde batek Alzheimerraren inguruan sortutako koreografia bat eskaini zien partaide guztiei. Bukaeran, parte hartzaileen artean opariak zozketatu ziren eta auzatea izan zen. Ekitaldian ere klinikako langileek aitortza jaso zuten.

## Bildutakoa

Proban parte hartu zutenek 10 euroko ekarpina egin zuten, eta trukean kamiseta jaso zuten opari. Ekimenarekin jasotakoa, 5.000

euro inguru, Josefina Arregi Klinikako eguneko zentroan egin nahi diren handitze eta berrikuntza lanak aurrera eramateko bideratuko dira. Aipatu lanak aurrera ateratzeko Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskatu zaio, eta erantzunaren zain daude. Lan horiek ez badira gauzatzen, jasotakoa klinikako erizaintza, terapia okupazionala eta fisioterapia osasun ekipamendua berritzera bideratuko da.

Dantzaleku Sakana klubekoak ere pozik zeuden. Peio Bergarak azaldu zuenez, 25 boluntario inguru aritu ziren lanean guztia antolatzeko, eta babesle eta laguntzaileei euren eskerrik beroenak eman zizkien.

**"ERANTZUNAK GURE AURREIKUSPEN GUZTIAK GAINDITU DITU"**  
JOSEBA ARREGUI

## Sutegiren bukaera festa

**KIROLDEGIA** Olaztiko Sutegi taldeak ikasturte bukaerako festa ospatu zuen larunbatean. Gimnasia erritmiko, taekwondo, irristaketa, esku pilota eta areto futbol taldeek erakustaldia egin zuten eta bukaeran auzate ederraz gozatu zuten. Sutegik eskerrik beroenak eman nahi dizkie Olaztiko Udalarri, herriko elkarteei eta babesle dituen enpresa eta komertzioei.



# Etxarri Aranatz, helburua lortuta

**FUTBOLA** Etxarri Aranatz futbol taldeak azken jardunaldian lortu zuen Preferente mailan jarraitzea, Ondalan taldeari 1 eta 2 irabazita. Ligako azken txanpan gora egin zuen taldeak, eta datorren denboraldia joera horrekin hasi nahiko lukete

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI ARANATZ  
Asteburuan Preferente mailako azken jardunaldia jokatu zen, 34. jardunaldia. Etxarri Aranatzek hil ala biziko hitzordua zuen larunbatean Villatuertan, kategorian mantentzea baitzuen joan. Ondalani 1 eta 2 irabazita, Preferente mailari eutsi dio Etxarri. "Azken uneraino sufritzen ibili gara, baina helburua lortu dugu eta beste urte batez Preferente mailan arituko gara" azaldu du Iosu Murgiondo Mundiñano entrenatzaileak.

Preferentean mantentzea ez da berez lan makala, baina Etxarri Aranatzek lortutakoak merituz gehiago du pandemiagatik urte batez geldirik egon zirela kontuan hartuta. 2020/2021 denboraldian ez jokatzera erabaki zuen Etxarri, taldea nahiko justu zegoelako, eta aurten, 2021/2022 denboraldian, lehiaketara itzuli ziren, talde gazte guztiz eraberrituarekin. "Hainbeste denbora baloia ikutu gabe egonda, hasieran bai



Taldeakideek larunbatean gogoz ospatu zuten Preferenteari eutsi izana. ETXARRI

ikusten zitzaigula... nola esan, erritmo faltarekin. Denboraldia luzea da, eta momentu onak eta txarrak izan ditugu, denetatik. Taldea asko gaztetu dugu eta partida askotan nabaritu da esperientzia falta hori, irabazita

genituen partidak azken unean galdu ditugulako, une horietan burua hotz ez izateagatik. Baina hori esperientziak ematen ditu. Azkenean gazteek korrika gehiago egiten dute, baina esperientziarekin korrika gutxiago egin-

da askotan gauzak hobe egiten dituzu" dio Murgiondok.

Aurten liga berezia izan da. Aurreko denboraldian ez zen jaitsierarik egon, soilik igoerak izan ziren, eta aurten liga normal batean baino jaitsiera gehiago izan dira. "Esaterako, gure mailan hiru jaitsiera izaten dira eta aurten sei izan dira. Horregatik estuago eta zailagoa izan da liga. Mailari eutsi diogu eta hori klubarendako eta jokalarierendako oso garrantzitsua izan da" nabarmendu du.

## Erreakzioa

Une zailak ere bizi izan zituzten. "Bizpahiru hilabetetan jaitsiera postuetan, salbaziotik bospasei puntura egon ginen, eta gauzak nahiko ilun ikusten ziren, baina taldeak ongi erantzun zuen eta ligaren azkeneko txanpa ona egin dugu. Ura leporaino genuela ikusterakoan erantzun genuen, eta ea egoeratik ikasi eta hurrengo denboraldian azken txanpan ikusi dugun Etxarri hau hasieratik ikusten dugun. Bide hau segitu beharra dago, lasaiago ibiliko garelako eta gauzak askoz hobe aterako zaizkigulako" azaldu du Murgiondok.

Villatuertako azken partida urduritasun handikoa izan zen. "Saillapenean hiru talde geunden puntutara berdinduta, eta argi genuen partida irabazi beharra genuela, bestela gu izango ginen mailaz jaitsiko ginenak. Partida ona egin genuen. Gu aurreratu

ginen eta berdindu gintuzten, baina aukerak izan genituen eta azkenean garaipena lortu genuen, 1 eta 2. Eta oso pozik" kontatu du. Nolanahi ere, presioari eustea ez zen erraza izan. "Larunbatean jokalariek nerbioak jota zeuden, eta zaila izaten da presioari eustea. Garaipena lortuta, ikustekoa zen jendea nola zegoen aldageletan" gogoratzen du Murgiondok. Afariarekin ospatu zuten kategoria mantendu izana.

Gutxika taldea esperientzia hartzen ari da, eta aurrera begira bide luzea eta oparoa du aurretik Etxarri. Orain, merezitako atsedena hartuko dute. "Liga oso luzea izan da. Orain deskonektatuko dugu eta Etxarriko festen ondoren beste denboraldi bat hasiko da". Altsasu Preferente mailara igo denez eta Lagun Artea Lehen Maila Autonomotik jaitsi denez, datorren denboraldian talde sakandarren arteko derbiak itzuliko dira. "Derbiak ligari beste bizitasun bat ematen diote. Azkenean Sakanako taldeen artean dugun pike hori oso polita da. Hirurak liga berdinean jokatzeko bizitasun gehiago emango dio denboraldiari" argi du Murgiondok.

**"AZKEN UNERAINO SUFRITU DUGU, BAINA PREFERENTEN JARRAITUKO DUGU" IOSU MURGIENDO**



## Etxarri Aranatz eta Lagun Artea, infantil mailako txapeldunak

**FUTBOLA** Nafarroako Kirol Jokoetako lehen infantil mailan, Etxarri Aranatzek Nafarroa iparraldeko bigarren multzoan jokatu du, Lakuntzako Lagun Artea taldeak hirugarren multzoan eta Altsasuk seigarren multzoan. Berriki despeditu zen txapelketa eta berri onak izan ditugu. Azken jardunaldian Etxarri Aranatzek 1 eta 0 irabazi zion Berriozarri eta bigarren multzoko liga irabaztea lortu zuen (22 puntu), hain zuzen ere Berriozarren aurretik sailkatuz (17 puntu). Hirugarren multzoan Lagun Artea 4 eta 2 irabazi zion Ilunberriri eta liga irabazi zuten (21 puntu), Kirol Sporten aurretik (19 puntu). Azkenik, seigarren multzoan Altsasuk Irabiarekin launa berdinduz despeditu zuen denboraldia, eta bosgarren sailkatu da (3 puntu).

**FUTBOLA** Lagun Artea maila galdu du baina bi partida ditu aurretik

Lagun Artea Lourdes taldea hartu zuen igandean Zelai Berrin. Lakuntzarrek Lehen Maila Autonomikoari eusteko azken aukera galdu zuten, Tuterako taldearen kontra 1 eta 5 galdu eta gero. Zarramonza da multzoko lider (58 puntu) eta Lagun Artea hamargarren postuan dago (40 puntu), jaitsiera postuetan, salbazio postuetatik zortzi puntura. Liga bukatzeko bi jardunaldi geratzen dira, eta, ondorioz, salbazioa ezinezkoa da eta Preferente mailara jaitsi da Lagun Artea. Larunbatean, 17:00etan, talde lakuntzarrek saillapenean hamabosgarren eta azkena den Fontellas izango du aurkari, Erriberan.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 27

**ALTSASU** Altsasu BHiko musika  
ikasleen kontzertu erraldoia.  
17:00etan, Iortia zabalgunean.

**IZURDIAGA** Bertako barietateak  
proiektua: *Baratzaren maneiu  
ekologikoa.*  
17:30etik 20:30era, elkartean.

**ALTSASU** Gazte agenda: Sexgunea.  
18:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte gunean.

**ARBIZU** Jardun Koordinadoraren  
aurkezpena.  
19:00etan, Argibidea gazte  
elkartean.

**OLAZTI** Karmele Jaio idazlearen  
*La casa del padre* liburuaren  
inguruko solasaldia.  
19:00etan, liburutegian.

**ALTSASU** Azken ostirala.  
Sarek deituta.  
19:30ean, udaletxearen parean.

**ETXARRI ARANATZ** Azken  
ostirala.  
Sarek deituta.  
20:00etan, plazan.

## LARUNBATA 28

**ARAKIL** Mendi martxa: Irurtzun  
– Izurdiaga – Errotz – Urritzola  
– Ekai – Zuhatzu – Satrustegi –  
Ihbar. Arbeltz gaztategira bisita.  
Iratxo elkarteak eta Arakilgo Udalak  
antolatuta.  
08:30ean, plazan.

**BAKAIKU, ITURMENDI ETA  
URDIAIN** Baietz 20.000 km  
Sareren erronka: Intsusburura  
martxa.  
09:00etan, plazetatik.

**ARBIZU** Zumbathoia solidarioa.  
Haur lasterketa eta zumba  
masterclass-a.  
Lasterketa, 10:00etan; zumba,  
11:00etan, kiroldegian.

**ALTSASU** CBASK taldearen  
Saskibaloi festa. Naiara Diez  
omenaldia.  
10:00etatik 13:00etara, Zelandi  
kiroldegian.

**ETXARRI ARANATZ** 17. San  
Kiriko txirriindulartza saria.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

*La maniobra de la tortua*  
gaurkotasunezko filmaren  
emanaldia  
Ostirala 27: 19:00

*Un héroe* gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Igandea 29: 19:30

*Cinco lobitos* gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Osteguna 2: 19:30

**Eskolen mailako lasterketa.**  
Aralar txirriindulartza taldeak  
antolatuta.  
16:00etatik aurrera, Burundabide  
kalean.

**UHARTE ARAKIL** Sakanako  
Itaiaren Emakume Langileon  
Eskolen hirugarren saioa:  
Gizarte biolentoz eta  
indarkeria matxistaz solasaldia.  
18:00etan, gaztetxean.

**ALTSASU** Gazte agenda: Mahai  
jolasak.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Boxeo, Kick  
Boxing eta K1 beilaldia.  
Sarrerak agortuta.  
19:00etatik aurrera, frontoian.

**ALTSASU** Sun magoaren  
*Houdini, la magia de la tele*  
magia ikuskizuna.  
19:00etan, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 29

**ETXARRI ARANATZ** Haurren  
futbol txapelketa: Etxarri  
Aranatz, Lagun Artea eta  
Altsasu kirol elkarteak.  
Etxarri Aranatz kirol elkarteak  
antolatuta.  
10:00etatik aurrera, futbol zelaietan.

**ZIORDIA** Bizi festa. Bizikleta  
ibilaldi berezia.  
10:00etatik aurrera, parkean.

**ETXARRI ARANATZ** *Autopista*  
*Elektrikorik ez!* Plataformak  
antolatutako Lurkide eguna.  
11:00etatik aurrera, plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Etxarri  
Aranazko Abesbatzaren  
udaberriko kontzertua:  
*Re-sonare.*  
19:00etan, elizan.



**IRURTZUN** Aitziber Iragiren *Nomadak* erakusketa.  
Maiatzean zehar, Pikuxar tabernan.

**ALTSASU** *Euskal preso*  
eta *iheslariak etxera*  
elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 30

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko  
elkarretaratzea.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

## ASTEARTEA 31

**IRURTZUN** *Osasun etxea zaindu*  
Sakanako Osasun Publikoaren  
Aldeko Plataformak deituta.  
16:30ean, kultur etxearen  
aurrean.

## ZORION AGURRAK



**Irune**  
Zorionak Irune!! 7  
urte!! Muxu haundi  
bat!!



**Mari Cruz Mundiñano  
Orayen**  
Urte askotako eta ongi  
pasa laubetien!!!  
Etxekuek



**Bazkide**  
**ZOZ**  
**keta**

**IRAILEKO SARIAK**


**1. SARIA**  
Olga Madina Nazabal (Altsasu)

**2. eta 3. SARIAK**  
Beatriz Madinabeitia Ortiz de Lazkano (Iturmendi)  
Elena Carretero Mateo (Arbizu)  
Edurne Amillano Garasa (Urdiain)


  

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



## ESKELA



**Juan Ignacio Erdozia Larraza**  
**Fidel Larraza Marin**  
**Felipe Ceberio Maiza**  
**Fco.Javier Guruzaga Etxarri**  
**Jose Antonio Goñi Jaca**

Beti gukin

Etxarri Aranazko 1953ko kintuek

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
 edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
 prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**  
 HEMEN, ZURE ONDOAN  
 AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
 zeinetan norbait  
 ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK  
**ALTSASU ETXARRI ARANATZ**  
 Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

## JAIOTZAK

- **Shakirin Yaseen Bin Ahmad Gonzalez**, maiatzaren 9an Etxarri Aranatzan
- **Lea Razkin Ezker**, maiatzaren 16an Lakuntzan
- **Noa Razkin Martinez**, maiatzaren 16an Lakuntzan
- **Saioa Burillo Olaetxea**, maiatzaren 20an Lakuntzan
- **Mattin Corchero Luis**, maiatzaren 20an Lakuntzan

## EZKONTZAK

- **Josu Razkin Otamendi eta Anne Etxeberria Lopez de Zubiria**, maiatzaren 24an Bakaikun

## HERIOTZAK

- **Encarnación Biosca Tortosa**, maiatzaren 22an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

*Lurre iragarriak laburra gure*  
**esmerkatu txikian**

948 56 42 75  
[iragarri@guaixe.eus](mailto:iragarri@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarriak](http://www.guaixe.eus/iragarriak)

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

**ERRENTAN EMAN**  
**Irurtzango Udalak igerilekuetako taberna alokatu nahi du udarako:** Baldintzak udaletxean eska daitezke. Igerilekuetako taberna eskuratu nahi duenak ekainaren 3rako aurkeztu beharko du eskaintza udaletxean bertan.

## LAN ESKAERA

**48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketara lan egiteko prest:** Telefono zenbakia 653 998 035.

## LAN ESKAINTZA

**Ergoienako Udalak Udan Euskaraz aisialdi eskaintzarako begiraleak kontratatu nahi ditu:** Dorrao eta Unanuko umeei zuzendutako eskaintza garilaren 18tik agorriaren 7ra izanen da, begiraleak bete beharreko baldintzak: 18 urte baino gehiago izatea, aisialdiko begirale titulua edo hezkuntzarekin zerikusia duen titulua izatea eta euskalduna izatea. Interesa baduzu bidali zure curriculum [info@ergoiena.com](mailto:info@ergoiena.com) emailera garagarriaren 10a baino lehen.

**Ziordiko Udala igerilekuetarako sorosle bila:** Udalak Udako igerileku sasoirako sorosleak kontratatu nahi ditu. Interesa dutenek Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Altsasun duen bulegoan izena eman beharko dute.

**Arakilgo Udalak zerbitzu aniztetak langileak kontratatu nahi ditu:** Interesa dutenek langabe gisa izena emanda egon beharko dute Nafar Lansaren. Eskabideak garagarriaren 2ra arte aurkez daitezke Arakilgo Udaletxean.

**Bakaikuko Udalak udako aisialdi eskaintzarako begiraleak kontratatu nahi ditu:** Lanpostuan interesa duenak curriculum bidali [udala@bakaiku.eus](mailto:udala@bakaiku.eus) helbidera, ekainaren 3a baino lehen.

## HIGIEZINAK

## SALGAI

**Pisua bajearekin salgai:** Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuek deitu 669 156 117 telefonora.

## SALGAI

**Erabili gabe dauden bi PVC lehoi salgai:** kristal hirukoitza dute eta 82ko profila. Neurriak 61x156 eta 61x151. Prezio negoziagarria. Deitu 628 506 283.

## OHARRAK

**Odol emateak Etxarri Aranatzan:** ekainaren 1ean, 17:00etatik 20:30ra, [www.adona.es/eu](http://www.adona.es/eu) webgunean informazio gehiago.

**Bakaikun Euskaraz aisialdian izen ematea:** 3 eta 12 urte arteko haurrei zuzendua, astegunetan 10:00etatik 13:00etara, ekainaren 27tik garilaren 21era burutuko da. Izena emateko udaletxera deitu (948 562 509) edo mezua bidali 622 268 161 (fnora ekainaren 3a baino lehen).

**Olaztik Udan Euskaraz kanpainan izen emateko aparteko deialdia:** maiatzaren 16tik 30era egin daitezke Udaletxean, 10:00etatik 14:00etara edo [olazti@olazti.com](mailto:olazti@olazti.com) posta elektronikora idatziz. Honako adin tarte hauetan daude plaza libre mugatuak; LH 1.mailan 3 plaza, LH 2.mailan 7 plaza, LH 3.mailan 2 plaza, LH 4.mailan 2 plaza, LH 5.mailan 11 plaza eta LH 6.mailan 5 plaza. Informazio gehiago eta baldintzak Olaztik Udaletxean.

**Arakilgo Aralarko santutegira erromeria eta bazkaria:** Ekainaren 5ean, Aralarko Mikel Deuna Santutegira egingo den erromerian, bazkarira joan nahi dutenek, txartela erosi beharko dute maiatzaren 31a, astearte, baino lehen Arakilgo Udaletxean. Bazkarirako txartelak 15 euro balio du errolatuentzat, 20 euro errolatuta ez daudenentzat.

**Irurtzango festetan etxajua pizteko hautagai proposamenak:** Irurtzundarrek pertsona edo taldea proposatu ahal diote kultur kontseiluari. Horretarako, [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) webgunean dagoen proposamen orria bete eta hura kultur etxean utzi edo hara bidali beharko dute [kulturretxea@irurtzun.eus](mailto:kulturretxea@irurtzun.eus) e-posta helbidera, maiatzaren 30era arte. Hortik bi aukeratu dituzte Kultur Kontseiluari eta herri bozketara egingo da garagarriaren 17tik 23ra, eta botoa udaletxean, [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) edo Irurtzundarrek aplikazioaren bidez.

**Etxarri Aranazko igerilekuetako irekiera:** maiatzaren 28an, larunbatean, zabalduko dira, 10:00etatik 20:00etarako ordutegiarekin. Uda gutxiturako txartela eskuratu nahi dutenek Etxarrikanpinaren [www.campinggetxarri.com](http://www.campinggetxarri.com) webguneari bitartez erosi beharko dute. Jubilatuek NANA aurkeztu beharko dute sarrera dohainik izateko. Bainu-txanoa eramatea derrigorrezkoa da.

**Tren publiko eta sozialaren aldeko ikerketa laguntzeko:** Trenaren aldeko Alternatibak AHT bat egin beharrean gaur egun dauden azpiegiturak beregokitzea defendatzen du. Tren soziala alternatiba erreala bilakatzeko ikerketa serioa egin nahi dute. Horretarako, crowdfunding kanpaina martxan jarri dute. 12.000 euro jaso nahi dituzte ekainaren 2rako. Ekarpenak egin nahi duenak <https://www.kukumi-ku.com/en/proyectos/trenaren-aldeko-alternatiba> webgunera jo dezake, edozein kopuru ongi etorria izango da.

**Gazteen Jaibuserako baimena:** Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago, auto istripuak sahiesteko. Lehen bidaia maiatzaren 7an egingo dituzte Iturnendin eta Altsasun festa baita. Jakinik, 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egiten da eta Jaibusera igotzeko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute beraien eremuko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuan, adingabearen argazki bat eramanez eta inprimaki bat bete. Irurtzango OGZ udaletxeko lehen solairuan dago, ifnoa 948 600 694, Etxarri Aranazko Kultur etxeko bigarren solairuan, ifnoa 948 460 752 eta Altsasuko Garbitoki egoitzako azken solairuan, ifnoa 948 467 662.

[iragarri@guaixe.eus](mailto:iragarri@guaixe.eus)  
[www.iragarrikalburak.eus](http://www.iragarrikalburak.eus)

**IRACHE**  
 tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70  
 @Grupolrache  
 f Grupolrache  
 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Altsasu BHiko DBH 3D klasea eta musika irakasleak musika gelan, entseguan argazkirako atsedena egiten.

#### Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Aspaldiko" kontua da Altsasu BHik antolatzen duen kontzertu erraldoia. Duela hogeit urtekoa. "Joxean Zabalo deitutako musika irakasle zegoen eta bera harremanetan jarri zen beste ikastetxetako irakasleekin eta haien artean erabaki zuten kontzertu erraldoi hau martxan jartzea", kontatu du Iñigo Aldunate institutuko musika irakasleak. Lau ikastetxek parte hartu zuten lehenengo kontzertu horietan: Leitza, Lekaroz, Doneztebe eta Altsasu. Kontzertuak lau herri-tan egiten ziren. "Ni duela hamar urte inguru etorri nintzen eta kontu horrekin jarraitu genuen, ikastetxeak aldatu ziren". Aldunate Iruñerriko ikastetxetan ibilia zen, eta haiekin antolatzen hasi ziren. "Urtero" jarraitu izan dute, pandemia iritsi arte. Gaur, maiatzak 27, ostirala, 17:00etan, Iortia zabalgunean bi urteko etenaldiaren ondoren kontzertua emanen dute.

#### Bereziak

"Pandemia etorri zenean denok gelditu behar izan genuen, etxetik lan egin behar izan genuen, eta garai horretarako kontzertua martxan zegoen". Abenduan hasten dira koordinazio lanetan, abestiak aukeratzeko eta abar. "Orduan egin genuena izan zen ikasleak etxetik kanta bat prestatu txirularekin, abesten edo dantzatzeko, grabatu eta bideo guztiak batera eman". 2021ean ere ikas-

# Kontzertu erraldoia

Covid-19 birusaren pandemiaren eraginez bi urteko etenaldiaren ondoren, Altsasuko institutuko DBH lehenengo eta hirugarren mailako ikasleek kontzertu erraldoia egingen dute gaur, maiatzak 27, 17:00etan, Iortia zabalgunean

turtea "oso baldintzatuta" egon zen eta institutuko musika gela "nahiko zabala denez eta aireztatuta dagoenez" txirula jotzen jarraitu zuten. "Gutxiago, baina jo izan dugu". Hala ere, kontzertu erraldoia egitea ezinezkoa zen gela desberdinak elkartzea debekatuta zegoelako, "beste ikastetxekin elkartzea zer esanik ez". Kontzertua egin zuten, baina baldintza horietara egokituta kontzertua: "Taldea bakoitzak kanta bat presatu zuen eta grabatu genuen". Zuzeneko faltsuan eskaini zuten Internet bidez.

**EMANALDIAREN XEDEETAKO BAT IKASLEEK HELBURU EDOTA ERRONKA BAT IZATEA DA**

2021-2022 ikasturtea hasi zenean oraindik Covid-19agatik neurria eta baldintza batzuk zeuden, eta jende guztiak arituko zituztela esaten zuen arren, "kontua berandutu zen eta horregatik ezin izan dugu beste ikastetxe batzuekin antolatu eta guk bakarrik egingo dugu". Inorekin elkartu gabe, orkestra "nahiko" erraldoia osatuko dute: 250 ikasle parte hartuko dute 2022ko Altsasu institutuko kontzertu erraldoian; DBH lehenengo mailako zazpi talde eta DBH hirugarren mailako bost talde.

Ikasleek txirula jotzen dute, gorputz perkusioa egiten dute, abesten dute eta haize instrumentuen eta zenbait instrumentuen laguntza dute ere, esaterako, baxu elektrikoa edo bateria. Kontzertu erraldoia "helburu bat da". Musika gelan egiten duen guztiak kontzertuan "bere

lekua" izango duela azaldu du Aldunatek. Kontzertua DBH lehenengo mailakoek hasiko dute eta hiru kanta egingen dituzte, ondoren hirugarren mailakoek bi kanta eskainiko dituzte eta azkeneko kantak guztiak batera joko dituzte. Guztira, bederatzi kanta izango dira. "Guztiak egitean zerbait buruan duzu. Erronka bat. Esango nuke oso gustura ari direla, oso motibatuta". Egun hauetan nork ez du entzun kaletik ibiltzen txirularen doinua? "Etxean entseatzen dute ongi egin nahi dutelako".

**GELAN IKASITAKO GUZTIAK LEKUA DU: TXIRULA, AHOTSA, GORPUTZ PERKUSIOA, MUSIKA TRESNAK...**

## Kontzertu erraldoiaren egitaraua

- 1 *Ellerman* (Sea Shanty) DBH 1
- 2 *Amavolovolo* (Afrikar herrikoia) DBH 1
- 3 *Errefuxiatuena* (Izaro) DBH 1
- 4 *Som* (Obrint pas) DBH3
- 5 *Clavado en un bar* (Maná) DBH3
- 6 *Sagarra jo* (Kalakan) DBH 1 eta 3
- 7 *Como convertirse en nada* (Gatillazo) DBH 1 eta 3
- 8 *Wake me up when september ends* (Green Day) DBH 1 eta 3
- 9 *Bella ciao* (Herrikoia/La casa de papel) DBH 1 eta 3

Abestiak aukeratzeko orduan bi irizpide izan dituzte kontuan: denbora eta zailtasuna. Kantak buruz ikasi behar dituzte eta horregatik errazak izan behar dute. Gainera, mailaren araberrako zailtasuna dago ere. Denbora mugatua izan dute kantak prestatzeko, azken unera arte ez dutelako jakin kontzertua egingo zuten edo ez. Bestetik, ikasturtean zehar ikasitako abestien artean ikasleei hautatzeko aukera ematen diete, nahiz eta "guk nahiko ongi badakigun zer nahi duten".

#### Musika ikasketak

Espainiako Gobernua prestatzen ari den LOMLOE hezkuntza erreforman kontzertu erraldoia bezalako proiektuek "garrantzia handia" hartuko dutela azaldu du Aldunatek. Proiektuak beste irakasgaiekin antolatu daitezke ere, eta hori da erreforma honekin sustatu nahi dutena. "Aspalditik ari gara egiten eta orain hezkuntzak horretara behartzen gaitu. Lana errekonozitzen dute". Musikari dago-kionez ez daude aldaketa handirik, mantentzen baitira irakasgaiaren orduak.

# Kultura kudeaketaren erronkak eztabaidagai

Maiatzaren 19an VIII. Kultura Kudeatzeko Topaketak egin ziren Altsasuko Iortia kultur gunean. Bilkura hau KUNAK Nafarroako Kultura Kudeaketaren Profesionalen Elkarteak antolatu zuen Nafarroako Gobernuaren Kultura sailarekin batera.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Gizarte digitala, ikus-entzunezkoen garrantzia, publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana eta kulturaren eraginaren inguruan eztabaidatu zuten, besteak beste, Iortia kultur gunean egin zituzten Kultura Kudeatzeko Topaketen zortzigarren edizioan. Eki-mena KUNA elkarteak antolatu zuen, Nafarroako kultur kudeatzaileak biltzen dituen elkarteak, eta ehun bat kultur kudeatzailek parte hartu zuten. Angel García Carreño KUNAKo presidentek, Rebeca Esnaola Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol saileko kontseilariak eta Javier Olo Martínez Altsasuko alkateak parte hartu zuten mustutze ekitaldian.

Topaketen helburua Nafarroako kultur kudeatzaileen profila sortzea dela esan zuen García, baita gaur egungo aldaketaren paradigmaren kompetentziak bilatu ere: "Digitalizazioaren garapena, kultur kontsumoa eta sarean lan egitea". Esnaolak kultura gizartean "ezinbestekoa" dela esan zuen, eta Iortia kultur gunearen "papera" goraiatu zuen. Olokek ere Altsasuko kultur gunearen "lan handia" nabarmendu zuen, eta topaketak Altsasun egitea eskertu zuen.

**Hitzaldiak**

Post pandemiaren kulturaren garrantziaren inguruan hitz egin zuen Diego S. Garrocho Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Jakintzaren Ikerketa eta Transferentziako dekanordeak. Azaldu zuenez, pandemiak kulturaren sarrera "pantaila mundu" batean eraldatu du, eta "tekonofobo" izan gabe, kultura "teknologiarik gabe" eraiki behar dela ondorioztatu zuen. Lehenengo hitzaldia- ren ondoren, Garrochok Marcos García Alonso kultur kudeatzaile eta kontsultorearekin eta Xíán Rodríguez Autonomia Erkidego- tako Kooperazio Kulturalaren Zuzendari ordezkarekin mahai



VIII. Kultur Kudeatzaileen Topaketen mustutze ekitaldia. KUNA

## BESTEAK BESTE, DIGITALIZAZIOAZ ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN GARRANTZIAZ HITZ EGIN ZUTEN

ingurua egin zuen. Bertan kultura berrikuntzarako eta gizarte aldaketarako motore dela esan zuten. Gainera, kultura kudeaketaren ikuspuntu desberdinei buruz eztabaidatu zuten, baita publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela ere. Mahai inguruan "herri inguruaren" garrantzia goraiatu zuten.

Marcos García Alonsok kultura komunitate digitalean sustatzearen garrantziaz hitz egin zuen. Hortaz, digitalizazio horrek eraldaketa sozialerako izan behar duela azaldu zuen, "plataformetan profil bat egitea baino gehiago".

Topaketen bigarren zatian Leticia Morales Mugimenduaren eta Dantzaren terapian trebatuta dagoen psikologoak performancea egin zuen. Ondoren, Rosa García Loirek, Nafarroako Ikus-entzu-

nezkoen Klusterraren presidentek, eta Itziar García Zubirik, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Ekoizle eta Profesionalen Elkarte-ko presidentek, zinema kultur kudeatzaile bezala goraiatu zuten. Esan zutenaren arabera, zinema bi munduen artean mugitzen da, industria eta artea, eta erregistro historikoa eta soziologikoa ere bada. Film jaialdian eta Nafarroan sortu den Navarra Film Industry-aren inguruan ere hitz egin zuten.

**Galderak**


Julia Juárez zinemagileak eta Espainiako Zinemaren Arte eta Zientzien Akademiako kideak bere bizitza zinema dela esan zuen: "Nire irudimenarekin nahi dudana egin dezaket". Instituzioek jendea kulturaren hezi behar dutela azaldu zuen, haurretik hasita. Bide honetan, zenbait galdera planteatu zituen: "Ikus-entzunezko lengoia berri bat bada, zergatik ez da zinemaren historia irakasten haurrak pantailarekin hezten ari badira? Politikariak zergatik diote beldur kulturari? Zergatik da Espainiako Kultura eta Kirol Ministeritza, kirola beste gauza bat bada?".



UTZITAKOIA

## Hiru sarirekin etxera

Altsasuko Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako hiru taldek Euskadiko Dantza Txapelketa Nazionalean parte hartu zuten: Lakuntzako Ilunabarra, Bi-hotz bikotea eta Altsasuko Bepiztu taldea. Bepiztuko Izarra saria eta bigarren saria irabazi zuen eta Bi-hotz taldea bigarren sailkatua izan zen. Hiru taldeak Dantza Modernoko Youth kategorian aritu ziren.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

## Herri txikietatik mundura

Sakanako udaletan pauso handiak ematen ari dira herritarrek mundura sarbidea izan dezaten. Arakilen adibidez, Abaila kooperatibarekin elkarlanean, zuntz optikoa zabaldu dute herri guztietatik, Guifinet sarearen bidez. Guifinet telekomunikazio sare askea, irekia eta neutrala da eta honi esker telekomunikazio enpresa kapitalista handien atzaparretatik irten eta sarearen burujabetasuna lortzen da. Hori esker, herri guztietara iritsiko da sarea, ez duelako negozioko lehentasuna izango, herritarrek izango dute bere sarearekin erabakitze askatasuna, ez dizkiete bere datuak komunikazio enpresa erraldoiei emango eta gainera, enpresa hauek ezartzen duten zentsurarik ez dute jasango.

Egun, ura eta elektrizitateaz gain Internet sarera sarbidea izatea ezinbestekoa da herri batek biziraun dezan. Herritarrek beste leku batera bizitzera joateko beharra senti ez dezaten, haurrek etxerako lanak egin ahal izateko sarea izan behar dute, baina baita

aisialdirako ere, bideo jokoak eta telesailak bogan daude gazteen artean, eta hauek erabili ahal izateko Interneterako abiadura duin bat izan behar dute. Baina ez haurrek bakarrik, geroz eta gehiago dira webgune bidez egin behar diren eskariak eta agiriak. Aurrez aurre egiten ziren izapide asko online egin behar dira gaur egun, medikuan ordua eskatu, errenta aitortpena edo kontzertu baterako sarrerak eskuratzeko, esaterako.

Populazioa ez galtzeaz gain, beste onura bat izan dezake abiadura ona duen Internet sarea jartzeak: kanpoko jendea herrira erakartzea. Gure herriak pandemiaren ondorioz hainbeste bultzatu den telelana egiteko leku ezin hobeak izan daitezke, herri txiki eta eder hauetan hirietako jendeak bilatzen duen lasaitasuna aurki dezake egunerokoan lan egiteko. Bulegoa belardi batean izan dezakete, eta zeinek ez du horrekin amesten?

Ireki daitezela Sakanako herriak mundura, eta mundua iritsi dadila herri txikietara.

# Dantzatzeko dantzarien DNA

Dantzaz konpainiako dantzariak Altsasu BHIko eta Andra Mari ikastolako DBHko bigarren mailako ikasleen gidariak izan dira Dantzabideak programaren barruan. Aste batean itsas herri batean oinarritutako koreografia sortu zuten ikasleek.

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Guk ez ditugu bakarrik ekoizpenak egiten, betidanik bitartekaritza egin dugu ere. Guretako oso garrantzitsua da. Beste aldean publikorik ez badago ez gara inor", azaldu du Fernando Saez de Ugarte Dantzaz konpainiako zuzendariak. Dantza talde bat baino gehiago da; erakunde "berezi bat" eta egiten duten lanaren bitartez publikoa "sortu" nahi dute eta dantza sektorea garatu. "Garatze horretan gure dantzariak gazteak dira, eta energia eta gogo handiarekin aritzen dira". Sortzen dituzten ikuskizunekin batera, beraz, bitartekaritza lana doa, "birak egiten ditugu baina beti komunitatearekin edo publikoarekin gauzak konpartitzen". Dantzarien DNA dago. Elkarbanatze hori Dantzabideak programaren bidez egiten dute, eta Nafarroako Antzoki Sarearen Oholtzara Salto ekimenari eta La Caixa fundazioari esker, duela lau urte Sakanara iritsi zen.

Aurreko astean Dantzaz konpainiako dantzariak Altsasu institutuan eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan izan ziren DBH bigarren mailako ikasleei dantza irakasten. Irakasleak baino gidariak izan dira. "Hasiere batean kanpotik etortzen diren pertsonak agertzen dira eta galdetzen diete ea nortzuk diren. Orduan, dantzariak direla eta dantza egingo dugula esan, eta aurrera". Gauzak funtzionatzen hasten direla esan du Saez de Ugartek. "Oso organikoki, baina funtzionatzen du".

Dantzabideak egonaldiaren helburua aste horretan koreografia bat sortzea da, publikoaren aurrean erakusteko. Ikasleek "mundu mailako estreinaldia" egiten zuten, beraz, Iortia kultur

gunean, eta Dantzaz konpainiak "teloneroak" dira. Aurten Getarian edo itsas herri batean inspiratutako Gesala lana aurkeztu du taldeak, eta ikasleek sortutako lanek oinarrian itsasoa-ren mugimenduak zituzten.

## 'Gesala'

Duela lau urte hasi zen Dantzaz konpainia haren lanak Sakanan aurkeztzen, eta urtero lan berri bat mustutzen dute. Aurten Gesala izan da. "Gurekin dokumentalak edo ikus-entzunezkoak egiten dituen ekoizle batek lan egiten du, eta Getariako dokumental bat egin zuen. Ideia nagusi horretan oinarrituta koreografia sortu genuen". Arrantza-leak, sare jostunak, sirenak, itsasontziak... Ikuskizunak itsas herri batera garraiatu zituen ikusleak.

Astebetean, egunero ordu batez, Altsasu BHIko eta Andra Mari ikastolako ikasleek koreografia bat sortu zuten. "Haien sorkuntzak egiten dituzte guk egindako ekoizpenean oinarrituta. Haiek egiten dituzte, guk ez dizkiegu koreografiak haiei pasatzen". Aurtengo gaia kontuan izanda itsasoa, olatuak eta abar oso nabariak ziren ikasleen mugimenduetan. "Taldearen araberakoa izaten da ere. Mugimenduetan sakontzeko duten joera eta abar. Egia da aurten nahiko koinziditu dutela, oso ongi aritu dira". Itsasoaren iruditegia oso barneratuta dugula azaldu du konpainiako zuzen-

**ASTE BATEAN IKASLEEK KOREOGRAFIA BAT SORTZEN DUTE ETA ERAKUSTEN DUTE**

dariak. Ikasleek egindako lana goraiatu du: "ez da lan erraza kontuan hartuta ikastetxeko lanean sartuta daudela". Tailerra "eskailera" bat dela dio: "Astehenean ez dute oso ongi ulertzen zer den eta prozesuan sartzen hasten dira, asteartean ulertzen hasten dira eta asteazkenean ostiraleko emanaldian parte hartu nahi dute".

Dantzabideak programaren laugarren urtea izan da eta ikasleak gogoarekin hartzen dutela esan du Saez de Ugartek. "Entzunda dute, aurreko urtetan ikusi dute eta nabaritzen da". Esaterako, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako laugarren mailakoei egokitzen zitzaie programan parte hartzea, baina egun horietan irteera bat zuten, "eta aldatu zuten eta bigarren mailakoekin egin zuten. Pena handiarekin joan ziren laugarren mailakoendako aukera bat delako, eta galdu dute".

"Ez dut esango magikoa denik edo errezeta magikoa daukagunik, baina funtzionatzen du. Astebetetz jartzen gara, eta ostiralean zerbait aurkezteko egoeran daude". Aurten bost taldek parte hartu zuten: hiru Altsasu BHIko ikasleek osatuta eta bi talde Andra Mari ikastolako ikasleek osatuta. Emanaldia Iortia zabalgunean egin zuten. Taldeen artean desberdintasunak nabaritzen direla aipatu du Saez de Ugartek, baina "errepikatzen diren elementuak" daudela gaineratu du. Garrantzitsuena talde lana egiten lortzen dutela da. "Guztiak parte hartzen dute, berdin dio nor den liderra... Dantzaren munduan gauzak parekatzen dira eta beste karta batzuekin jokatu dute. Sorpresak hartzen dituzte. Hori oso polita da". Taldea da nagusi.



Andra Mari ikastolako DBH 2. mailako ikasleak.



Altsasu BHIko DBH 2. mailako ikasleak.



Altsasu BHIko DBH 2. mailako ikasleak.



Andra Mari ikastolako DBH 2. mailako ikasleak.



Altsasu BHIko DBH 2. mailako ikasleak.

## 11 GALDERA



Jakiunde Jakin-mina programan parte hartu duten Andra Mariko ikasleak.

# "Hitzaldiak uste baino arinagoak izan ziren"

Andra Mari ikastolako DBH laugarren mailako Nagore, Uxue, Obats, Oier, Maddi eta Maia ikasleek Jakiunde Zientzien, Arteen eta Letren Akademiak bultzatutako Jakin-mina programaren hamaikagarren programan parte hartu dute.

**E. C. M. eta E. R. B.** ETXARRI ARANATZ

## 1 Bost edo sei ikasleen taldeak behar ziren. Nola egin zenuten aukeraketa?

Boluntariorik omen zegoen galdetu zuten, nahi genuenak baietz esan genuen, eta aurrera. Aurreko urtean zozketa egin zuten jende gehiago zegoelako, baina aurten denak hartuko zituztela esan zuten.

## 2 Jarduera DBH 4ko ikasleendako da. Aurretik Andra Mari ikastolakoak egon dira. Ezagutzen zenuten?

Zerbait bagenekien, baina aurreko urtetan justu pandemiak harrapatu zien eta hitzaldiak online egin zituzten.

## 3 Irakasleen hitzaldietara joan zarete. Ikastolako irakasleekin aldea nabaritu duzue?

Azkenean, gai horretan esperientzia gehiago dutela eta gaia gehiago menperatzen dutela nabaritzen da. Eskertzekoa da.

Unibertsitateko irakasleak dira, eta asko zekiten.

## 4 Ulertzeko errazak izan ziren?

Gaiaren araberrakoa. Ez irakasleengatik, baizik eta gaiarengatik.

## 5 Nola antolatuta zineten joateko?

Jakiunde bi gune jarri zituen: Iruñeko Civicanen eta Tuterako areto batean. Iruñera joan ginen. Hitzaldiak ostiral arratsaldetan ziren, hilabetearen behin, eta autobusa hartzen genuen 15:45ean, eta buelta 20:00etan. Horrela ibili ginen bost alditan.

## 6 Guztietara joan behar zineten?

Diploma hartzeko lautara joan behar ginen, gutxienez. Guztietara Maddi, Maia eta Obats joan ziren, Oierrek, Uxuek eta Nagorek saio batera ezin zutelako joan.

## 7 Lehenengoa ingelesez izan zen.

Lehendabizikoa *Regenerative buildings: utopia or achievable*

*reality?* izan zen Amaia Zuazua-rekin. Ingelesez izan zen, baina ulertzeko oso erraza izan zen. Espero genuen ulertzeko zailagoa izango zela, baina denak nahiko ongi ulertu genuen; oso argi hitz egiten zuen. Iristen zen momentu bat non ez ginen ohartzen ingelesez ari zela. Eraikin jasangarri buruz hitz egiten zuen. Eraikin bereziak erakutsi zituen, gaur egungo egoerara moldatutakoak...

## 8 Abenduan, '¿Por qué matemáticas?' Gustavo Otxoarekin izan zenuten.

Erdaraz izan zen, eta gustura egon ginen erraz ulertzen zitzaizkion. Ez zen pisutsua egin. Matematikaren historiari buruz, matematikari batzuei buruz hitz egin zuen, zenbaki lehenak eta horrelako gauzak. Buruketa batzuk egin genituen ere denak elkarrekin. Magia truko bat egin zuen, ez zitzaioela oso ongi atera. Dena matematika dela erakutsi nahi zuen. Dinamikoa izan zen, arina.

## 9 Hurrengoa 'Musica oír o escuchar' Teresa Catalán konpositorearekin. Ez baita berdina, ezta?

Hitzaldia dataz aldatu zuten, baina oso polita izan zen. Orkestrek istorio bat kontatzen dutela esan zigun, eta adibideak jarri zizkigun: suabe hasten dira eta gero igotzen joaten da. Musika estiloen konparaketa historian zehar erakutsi zigun. Bitxia iruditu zitzaigun.

## 10 Roldan Jimenok 'Nafarroako Konkista 500. urteurrenean' hitzaldia eman zuen.

Ikuspuntu desberdinak ditugu. Euskaraz izan zen bakarra. Jende askok ez zekien euskaraz. Gustatuko litzaziguke euskaraz hitzaldi gehiago izatea; balorazioan jarri genuen. Uste genuen txapa gehiago izango zela, azke-

nean Nafarroako Konkista ez da ulertzeko gai erraza, baina batzuei ez zitzaigun aspergarria egin. Beste batzuei aldiz ez zitzaigun hainbeste gustatu eman zuen moduagatik. Gauza berdinari mila buelta ematen zizkion. Pixka bat pisutsua egin zen.

## 11 Azkena, hirietako aire kalitateari buruz, COVID-19aren ondoren Jesus Mari Santamaria kimikariarekin. Zer moduz?

Interesgarria izan zen. Itxialdian geundenean denek nabaritu genuen airea desberdina zela. Mendiak argiago ikusten genituen. Olazti aldetik mendia ikusten zen. Aurretik lainoa eta kutsadura ikusten zen. Grafikoekin aldaketa ikusi genuen, eta horrela argi ikusi genuen.

